

«HARENGAN GURE ITXAROPENA»

PASTORAL GUTUNA, 2025EKO JUBILEU URTEA DELA ETA
FERNANDO PRADO AYUSO, CMF JAUNAK
DONOSTIAKO GOTZAINAK

2024KO ABENDUALDIA

AURKIBIDEA

SARRERA

Betiko bizia: Itxaropenaren helmuga (2. zk.)
Gutun honen zergatia eta egitura (7. zk.)

I. ITXAROPENERAKO JUBILEUA

- 2025eko Jubileu unibertsala (15. zk.)
- Elizbarrutiko Jubileua: Elizbarrutiaren 75. urteurrena (21. zk.)

II. ALDIAN ALDIKO EZAUGARRIAK AZTERTU

- Mundu osoko eta Europako testuingurua (28. zk.)
Ekonomia «buru izatearen» arriskua (29. zk.)
Migrazio-fluxuak (30. zk.)
Teknologien eragina (31. zk.)
Aldaketa kulturala (32. zk.)
- Gipuzkoan dugun testuingurua (35. zk.)
Normaltasun demokratikoa (36. zk.)
Nolabaiteko ongizatea (37. zk.)
Gizakien mugikortasuna (41. zk.)
Gazte zaurgarriak (42. zk.)
Aldaketa kultural izugarria (44. zk.)
- Gipuzkoako gure kristau elkarteak (45. zk.)
Elizbarrutiaren eraberritzeari bultzada berria (47. zk.)
Elkarrengana gerturatu beharra (49. zk.)
Argazki bukatu gabea (52. zk.)

Zenbait ahultasun (54. zk.)
Sendotasunak edo indarguneak (56. zk.)
Mehatxuak (58. zk.)
Egokierak edo aukerak (60. zk.)
Protagonista, Jainkoa (62. zk.)

III. BIHOTZ-BERRITZE PASTORALA ETA MISIOLARIA

- Eraberritzearen giltzarria (66. zk.)
- Eraberritzeko prozesuak (70. zk.)
 - Fede-esperientzia landu (espiritualtasuna) (73. zk.)
Garai latzak (74. zk.)
Jainkoaren adiskide sendoak (75. zk.)
Sinesmena lantzeko dinamismo batzuk (77. zk.)
 - Fedearen eskualdatzea (78. zk.)
Lehenbiziko iragarpena (79. zk.)
Metodo berriak (81. zk.)
Harrera, katekesia eta sarbide kristaua (83. zk.)
Hazkundera eta formazioa (85. zk.)
 - Sinodaltasuna eta elkartasuna (87. zk.)
 - Lurralde berrantolaketa misiorako (92. zk.)
Irtenbideak eta egokitzeak (93. zk.)
Berrikuste beharrezkoa (94. zk.)
Bereizmen, diszernimendu, irekia (95. zk.)
Bizia duten lekuak (96. zk.)

IV. POSIBLE DIREN AMETSAK

1. Gure espiritu-bizitza zaindu (99. zk.)
2. Behartsuenak eta ahulenak (101. zk.)
3. Gure senide migratzaileak (105. zk.)
4. Emakumea (107. zk.)
5. «Kultura bokazional» bat (109. zk.)
6. Laikoen ministerioak (111. zk.)
7. Diakonotza iraunkorra (115. zk.)
8. Hezkuntza katolikoa (117. zk.)
9. Liturgia eta ospakizuna (118. zk.)
10. Herri-jaiak (121. zk.)
11. Komunikazioa (122. zk.)
12. Ekonomia, ondarea, iraunkortasuna (123. zk.)

AMAIERA



IDATZ
—argitaletxea—

«Harengan gure Itzaropena»
© Idatz, 2024

Artzain Onaren plaza, 15, behea
20.008 Donostia/San Sebastián
Tlf.: 943 465 326
<https://elizagipuzkoa.org>
idatz@elizagipuzkoa.org

SARRERA

«Basamortuan zehar dabila
Jainko-herria erromes;
argi, bake ta maitetasuna
dakarten zeruen galdez.
Agindu lurra Jainkoak dio
emango kateen orde; z;
penak utzita goza dadien
bizi berri baten pozez.
Zure pozetan goaz,
Jerusalem berri;
fedea zu baitan du
bere zimentarri.
Maitasunak zu zaitu
bere berogarri.
Piztu itxaropena
zure herriari».
(*Orduetako Liturgia*)

1. Liturgian abestu ohi dugun gorazarre hau Itxaropenaz mintzo zaigu, bizitzako bideetan aurrera egiteko bultzada dugun Itxaropenaz. Hain zuzen, une honetan Abendualdiko oihua entzuten ari gara, Jaunari bidea presta diezaiozun (ik. Mk 1, 3). Bai, Itxaropenean erromes gara. Jainkoak emandako dohaina dugu Itxaropena; horri esker aurre egin diezaiokegu bizitzari konfiantzaz, eta bake onean ibil gaitezke helmuga handi horretarantz: Erreinurantz. Geure burua Jainkoaren eskuetan jarriz –horiexek ditugu gure bizitza pausatzeko eskurik hoberenak– etorkizunerantz abiatzen gara, beti lauso arteko bideak dituen etorkizunerantz, baina, atsekabeak eta atseginak dituzten bideak izanik ere, helmuga zein den ziur dakigularik.

Betiko bizia: Itxaropenaren helmuga

2. Itxaropena ez digu pizten optimismo inozoak; Jainkoagandiko bertute teologala da. Jainkoa hor, gure artean, dabilela esan nahi du horrek. Jainkoa, Aita dugun Jainkoa!, hor da beti, misterioitsu, gauzen ardura duela. Nire gaztarroan, parrokiako gazte taldeetan, Taizéko Anaia Roger-ek idatzi ohi

zituena gutunak irakurtzen eta lantzen genituen. Jainkoaren gizon hark idatzi zuen hainbeste gauza ederren artean, orduan liluratu ninduen eta beti neurekin izan dudana esaldia dut gogoan. Neure misiolari-bizitza ulertzen laguntzen dit eta, orobat, Ebanjelioa, egiaz, ez dela gure jabegoa, baizik eta Ebanjelioa itxaroten dutenena baizik¹. Hona zer zioen: «Giza izatea bere sakonik sakonenean *presentzia baten zain dago, komunio berezi bat desio du isilik*»². Hara ba, Itxaropen horrek eusten gaitu eta babesten etsipen ororen aurrean eta «gure bizitzaren aingura tinko eta segurua dugu» (Hb 6,19). Biderako kemena ematen digun Itxaropena, Jainkoa ezagutzera iritsiko gareneko uste ona da, Jainkoak neurrigabe maite gaitueneko esperientzia. Maitasun hori dugu geure zain, eta egun batean bere handitasun pentsaezinean agertuko zaigu behin betiko, betiereko bizi bihurturik. Horixe da itxaro dugun presentzia, horixe desio dugun komunio berezia. Zain dudana Aitaren maitasuna, Bera dugu denon zain.

3. Sinestunaren ikuspegitik, beste era batera ulertzen eta bizitzen dira gauzak. Bizitza ederra da, beste itxura bat hartzen du: «bihotza gaztea denaren bertutea da Itxaropena; honetan, adinak ez du zerikusirik»³. Jainkoak maite gaituela eta bidean gurekin datorrela jabeturik egoteak, ziur egoteak, beste itxura bat ematen die gauza guztiei. Etorkizuna segurua denean, oraina eraman-garri gertatzen zaigu. Uste on horrek kementsu egiten gaitu. Orain gabiltzan lurralde arrotz hau, hitzemandako lurraldetik oraindik urrutiko egonik ere, bizitzeko moduko leku gertatzen zaigu, gure etxe, gure konpromiso. Horregatik

1 Ik. Madeleine Delbrèl, *Nosotros, gente de la calle*, Ed. Estela, Barcelona, 1971, 69. or.

2 Roger de Taizé anaia. *Fuentes de la confianza*. (1990ko gutuna).

3 Frantzisko, 2024ko maiatzaren 8ko *Audientzia orokorra*.

da Itxaropena, bere indar hutsean baino bidelagun dugun Jainkoaren leialtasunean konfiantza handiagoa dutenen bertutea; errealitateak gaina hartu diela ikusirik ere, bere burua Jainkoaren eskuetan jarri eta haren promesan konfiantza izanik, errealitatean murgiltzen direnen bertutea. Horrexegatik da salbatzailea eta eroslea Itxaropena. Geroak, etorkizun denak (*ad-ventus*), aldatu egiten du oraina. Bera zain dugula ziur egonik, espero dugun Maitasun horren beteak markatua agertzen zaigu oraina, huts egin gabe.

4. Misterio hau «ezagutzen dugun errealitate ezezaguna»⁴ da guretzat. Egunen batean, gure ibilaldia bukatzean, bere betean jarriko zaigu agerian; baina neure zain dudan maitasun horrek eusten nau orain, dagoeneko. Dohain moduan agertu zaigun maitasun horrek ahalbideratzen dit tinko irautea, Itxaropena galdu gabe, berez akastuna eta mugatua den mundu honen erdian. Azken batean, Itxaropen horrek garamatza Jainkoaren ontasun neurrigabeko eta errukitsuan konfiantza izatera, ontasun horrek beti irekiko baitzikigu salbamerako bideak, baita egoera nahasi, zail eta, itxuraz, ezinezkoetan ere. «Jainko ikusezinaren irudi den» (Kol 1, 15) den Kristo honetaz mintzatu zitzaigun bere bizitzaz, heriotzaz eta piztueraz. Hala oroitarazi digu Frantzisko Aita Santuak bere azken entziklikan: «'Berak maite izan gaitu' (Erm 8,37) [...] guri laguntzeko ikusten maitasun horretatik 'ez gaituela ezerk aldenduko' (Erm 8,39) [...]. Jesusi esker, 'guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna' (1 Jn 4,16)»⁵.
5. «Beldurrez dardar» (Flp 2, 12), konfiantza horretan sendotu nahiz zintuzketet, batez ere une hauean, agian, «ibar beltz ilunetan» (Sal 23[22]) zabiltzatenok. Bihotzean daukadana neronek baino askoz hobekiago adierazten duten hitz hauek hartuko ditut san Paulogandik: «Badakit ziur, ez heriok eta ez bizik, ez aingeruk eta ez goiko beste indarrek, ez oraingok ez gerokok, ez inolako boterek, ez ortziko eta ez lur azpiko indarrek, ez beste izakik ez gaituela aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunarengan agertu digun maitasunetik» (Erm 8, 38-39).

6. Berri On salbagarri hau, ordea, belaunaldi bakoitzak, pertsona bakoitzak bereganatu beharra du. Nola hots egin gure garaiko gizon-emakumei Jainkoak betidanik, unibertsoaren hasieratik, maite dituela? Nola adierazi gaur egun Itxaropen eta poz hori, Jainkoak neurrigabe eta dohainik, edozein egoeratan, maite dituela jakiteak ematen duen Itxaropena eta poza? Nola jakinarazi hau ez dakitenei? Nola gogorarazi, itxuraz ahaztua dutenei? Nola iragarri hau behartsuei?

Gutun honen zergatia eta egitura

7. Abendualdiaren hasieran eskaintzen dizuet gutun hau, Eliza *Jubileu* handiko ateak irekitzeko zorian dagoenean, eta gu Gipuzkoan, beste oroipen bat izateko gaudenean. Eliza osoaren *Jubileuaz* gainera, gure elizbarruti gazte honen sorreraren 75. urteurrena ospatuko dugu 2025ean. Abendualdia deritzan liturgialdi hau egokiera ezin hobea dugu bihotza prestatzeko, Jainkoaren graziara irekitzeko eta Itxaropena elikatzeko. «Ilunpetan zegoen herriak argi handia ikusi du» (Is 9,1) eta Hitz haragi eginaren misterioaren aurrean (Jn 1,14), Emmanuelen aurrean, Jainkoa-gurekin denaren aurrean (Is 7, 14), Itxaropen hau aitortzera deituak gara gu.
8. *Urte Santu* hau, hain zuzen, honako goiburu honen pean ospa dezagun nahi izan du Frantzisko Aita Santuak: «Itxaropenean erromes». Une egokia iruditu zait, beraz, oraingo hau elizbarrutiko elkarte osoari nire hitza zuzentzeko, zuen artean bi urte egin ondoren. Elizan ozenki entzuten ari garen Itxaropenerako deiaz baliatuz, eta Gipuzkoan Eliza horren artzain naizenez, «profeta, testigu eta zerbitzari»⁶ izan nahi nuke.
9. Biziki sumatzen dut dei hori nire baitan. Agian, ez naiz beti horren mailara iristen –eta, horregatik, ulertzeko eta pazientzia izateko eskatzen dizuet–; baina garbi ikusten dut, gotzain naizen aldetik, elizbarrutiko jarduera antolatzen ez ezik, elkarte-espirtua bizkortzen deitua naizela. Aita Santuak oroitarazi izan dit «antolatzaile baino gehiago artzain izan behar dudala». Badakit biak ditudala, eta beste batzuk ere bai, nire

4 Ik. Benedikto XVI.a, *Spe salvi* Entziklika (2007), 12. zk.

5 Frantzisko, *Dilexit nos* Entziklika (2024), 1. zk.

6 San Joan Paulo II.a, *Pastores gregis* Aholku-hitz apostolikoa (2000), 3. zk.

gotzain-ministeritzaren eginkizun, eta bat ere ez dut deskuidatu behar; hala ere, bigarren eginkizuna alde batera utzi gabe, lehenbizikoa dudala eginkizun garrantzitsuena. Elizbarrutiaren gobernuan bakarrik ez ibiltzeko zori ona dut, Elizako gizaseme eta emakume leial, arreta handiko, ongi prestatuak eta konprometituak ditut lankide eta laguntzaile, zorionez. Ebanjelioari darion argi eta kemenez, Jesus Jaunak nigan Itxaropen hori bizkor mantentzen du; Itxaropen hori nahi nizueke eskualdatu eta horretan sendotu.

10. Elizbarruti honetara iritsi nintzenez geroztik pertsona asko ezagutzeko zori ona izan dut (apaizak, pertsona sagaratuak, eta laiko/laika ugari), une, esparru eta egoeratan; nahiz bakarka nahiz taldean, parroketara eta komunitateetara egindako ikustaldietan, gertaera garrantzitsuetan nahiz bilera ezberdinetan. Baita parroketako ospakizunetan herrietako jaietan, erromesaldietan eta beste zenbait elkarketetan, txikiagoak izanik ere gainerakoak bezain garrantzitsu diren elkarketetan. Horrek guztiak lagundu dit eta laguntzen ari zait gure elizbarrutiaren bizkortasuna hobeki ezagutzen eta gure lurraldeko gizartearen egoera nolakoa den jakiten. Horretan ahaleginak egiten jarraitzen dut. Oraindik ere ikustera joateko nago parroki elkarte asko, monasterio eta erlijioso-komunitate asko. Oso garrantzitsua da niretzat aurrez aurre ikustea hainbeste bihotzen taupada entzutea eta sentitzea. Saiatu naiz entzuten pertsona, erakunde eta elkarte ezberdinen ahotsa; baztertuak eta kanpoan utziak bizi diren senideengana hurbiltzen saiatu naiz. Erakundeen ordezkari direnei entzuten ere saiatu naiz: gai publikoetan ari diren gizaseme eta emakumeei, gobernuan nahiz oposizioan herritarren zerbitzura –maiz gaizki ulertuak izanik ere– saiatzen direnei. Horiekin batera, lankidetzeta leialean, geure gizartea eraikitzen ari gara, denen ona bilatuz. Eta hara, behin eta berriz ikusten ari naiz egia dela honako intuizio hau: giza bihotz orotan taupaka ari dela indartsu «*presentzia baten zain egotea, komunio berezi bat desio izatea isilik*».

11. Ikusten dut eta balioztatzen elizbarrutia osatzen duten fededunen aberastasuna eta eskerrak ematen dizkiot Jainkoari horregatik; ikusten dut gure elkarteak mota askotakoak direla beren barnean

eta era askotako langintzak betetzen dituztela ahalegin handia eginez, duten guztia emanez eta ardura handiz. Gure lurrean Jesusen Eliza izaten jarraitzeko gogo nabari dut, eta biziki balioztatzen dut hori. Etengabe eraberritzeko nahiera sana ere nabari dut, alegia parte hartu nahia bihotz-berritze pastoral eta misiolari etengabean, Elizak ari digun deiari erantzunez. Gure elizbarrutia, bere mugak eta ahultasunak dituen arren, «orkestra sinfonikoa» bezalako zerbait da, miresgarria eta bizia⁷. Jaunak nahi duen batasunerako eta elkartasunerako deia (Jn 17, 21) gero eta egiazkoagoa da gure artean. Testigu naiz nolako ahalegina egiten ari diren elizbarrutiko kristauak senidetasun-loturak indarberritu eta indartzeko, baita elkarte batzuek beste batzuekin ere eta karmisma ezberdinekoen artean.

12. Gutun hau idatzi nahi izan dizuet, Itxaropenaz dudan zenbait konbikzio zuekin partekatzeko eta, orobat, gure testuinguruan, elizbarrutiko eliz elkarteak bizi duen uneaz gogoeta batzuk eskaintzeko. Gaur egun norantz abiatzeko deia hartzen ari garen ere nahi nizueke seinatu. Horrela ba, gutuneko lehen zatian (I) Itxaropenaz sarrerako gogoeta egin ondoren, 2025eko *Jubileuak* ekarriko digun egokiera berezia ere adierazi nahi dizuet. Denok gaude *Jubileuko* egoera hori bizitzera deituak. *Urte Santu* berezia izango da, zinez; grazia eta eraberrikuntza hartzeko egokiera, elkarketarako eta Itxaropenerako egokiera. Bigarren zatian (II), aldien aldiko ezaugarriak aztertzeko pintzelkada batzuk eskainiko dizkizuet, munduari fedebegiz begiratzeko, ikasle-misiolarien fedebegiz. Begirada bat egingo diogu geure testuinguru orokorrari eta, orobat, gu hemen bertan inguratzen gaituen bertako testuinguru sozio-kulturalari. Gipuzkoako Elizan dugun egoeraren ezaugarri batzuk ere aurkeztuko dizkizuet atal honetan; ezagunak irudituko zaizkizue. Garrantzitsua da bizi dugun une honetaz jabetzea, kontzientziatzea. Hirugarren zatian (III) gure elizbarrutiak,

⁷ «Orkestra iruditatz harturik adieraz daiteke zer den Eliza sinodala; musika-tresna ezberdinak beharrezkoak dira musikari edertasunaren bizia emateko eta musikari harmonia. Musikan, bakoitzaren ahotsak bere ezaugarri bereziak mantentzen ditu, baina denen egitekoaren zerbitzurako. Horrela jartzen da agerian Espirituak Elizan egikaritzen duen harmonia, zeren harmonia bera baita Espiritua. (ik. S. Babilio, 29.1 *Salmoaz*; *Espiritu Santuaz*, XVI.38)» (Gotzainen Sinodoaren XVI. Batzar Orokoreko *Bukaerako Dokumentua*, *Sinodo erako Elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa*, 2024ko urriaren 6, 42. zk.).

nire ustez, beharrezko dituen prozesu batzuk azalduko dizkizuet; halakoak azpimarratzen jarraitu behar dugu eta sendotu gure eraberritze bidean. Azkenik (IV), amets batzuk ere nahi dizkizuet adierazi, Gipuzkoan alor batzuk bizkortzeko eta ebanjelizatze-lana bultzatzeko balio izango duten ametsak; horrela, gure «Itxaropenaren arrazoia (1Pe 3,15)» eman ahal izan dezagun.

13. Gutun honek gure bihotzean gogo beroa eta Itxaropena piztuko duela espero dut, baita gure kristau elkarten bihotzean ere. Eta, errealitatea ahaztu gabe, bizkortuko duela gure baitan eraberritzeko gogoia, “geure Itxaropena” (1 Tm 1, 1) dugun Haren berri emateko eta Berari jarraitzeko, Berarengan sinesten baitugu eta itxaroten gauza guztien gainetik.

I. ITXAROPENERAKO JUBILEUA

14. Etsia dago Aita Santua mundua, oro har, eta sinestunak zehazki, gauza askotan Itxaropenaren beharrean gaudela: «Zein beharrezkoa duen munduak gaur egun bertute kristau hau! Itxaropenaren beharrean da mundua, baita pazientziaren beharrean ere, Itxaropenari eskua emanda baitator bertute hori»⁸. Denok gaude, bai, Itxaropenaren behar larrian. 2000. urteko *Jubileua* historiako hirugarren milurtekoan sartzeko izan zen. San Joan Paulo II.ak irrika handiz itxaron zuen, kristau guztiok, historian zehar izandako zatiketak gaiturik, Jesu Kristoren jaiotzaren 2000. urteurrena elkarrekin bat eginik ospatu ahal izango genuen itxaropenez. Geroztik, 2015ean, Frantzisko Aita Santuak *Jubileu* ezohikoa deitu zuen, Jainkoaren «Aurpegi errukitsua» agerian jartzeko eta aurkitzeko, horixe baita Ebanjelioko mezu nagusia aldi guztietako pertsona oroentzat.

1. 2025eko Jubileu unibertsala

15. Aurrez ikusia zen bezala, Frantzisko Aita Santuak 2025ean *Jubileu* unibertsal ohikoa bizitzera deitu gaitu. *Jubileurako* jarri nahi izan duen goiburua honako hau da: *Itxaropenean errones*: «Kristau bizitza bidea da, itxaropena elikatze eta sendotzeko indarguneak behar dituen bidea, zeren bidelagun ordezkazina baitu kristau elkarteak Itxaropena, helmuga zein den begiztatu ahal izateko: Jesus Jaunarekin elkarketa»⁹. Bertute teologal hori ardatz duen ohiko *Jubileua* izan dadin nahi du Aita Santuak, eta «indargune» gertatzea nahi luke, Elizan eta gizartean

garrantzi espiritualak izango duen gertaera izatea: «1300. urtean Bonifazio VIII.ak eratu zenez geroztik, ospakizun hori graziazko dohain berezitat bizi izan du Jainkoaren herri leialak jubileua, bekatuen barkamena eta indulgentzia berekin duen jubileua, Jainkoaren errukia bete-betean erakutsiz, sinesmena biziberritzeko eta Itxaropenaren iturrietan edateko»¹⁰.

16. Jubileu-gertaera arrazoi eta egokiera bikaina da norberaren konbertsiorako eta Elizaren eraberrikuntzarako; horregatik, artzain-gutun honen espirituarekin bete-betean konektatzen du: «2025eko *Jubileua* ospatzeak lagun dezake, asko gainera, Itxaropen- eta konfiantza-giroa berreskuratzen, denok hain beharrezko ikusten dugun birjaiotze berriaren ezaugarritzat »¹¹.

17. Bere egitekoa Itxaropenik gabe bizi duen Elizak ezin dio esanahi handiko ezer eskaini gure munduari. Horregatik, ospakizun honek etsipenaren tentazioa gaituzten lagun diezagun nahi du Frantzisko Aita Santuak, Elizaren bizitzaren erdian maiz ikusten baita halako etsipena. Horrela, Eliza «gero eta argiago izan dadin batasunaren ezaugarri eta baliabide harmonian eta aniztasunean»¹².

18. Jubileu-urtea bezalako une berezi orok laguntzen digu historia fede- eta Itxaropen-begiz ikusten. Iragana esker onez –baita onginahiz ere– begiratzen lagundu behar digu *Urte Santu* honek, oraina kartsuki bizitzen eta etorkizunera

8 Frantzisko, *Audientzia orokorra*, 2024ko maiatzaren 8an.

9 Frantzisko, 2025eko *ohiko Jubileua deitzeko Bulda*, *Spes non confundit* (2024), 5. zk.

10 *Ibid.*

11 Frantzisko, *Mons. Rino Fisichella Gorenari Gutuna 2025eko Jubileurako*, 2022ko otsailaren 11an.

12 *Ibid.*

Itxaropenez irekitzen¹³. Ez dezagun utzi etsipenak haren promesa lausotu dezan. Izan dezagun beti gogoan honako egia hau: «Jesu Kristo bat bera da atzo gaur eta beti» (Heb 13, 8). Beti geurekin izango dugula hitzeman digu Berak «egunero munduaren azkena arte» (Mt 28, 20).

19. Hari honetan, dei egiten digu denoi Frantzisko Aita Santuak «eman zaigun Itxaropenaren zuzia pizturik mantentzera, eta eginahalak egitera gutako bakoitzak kemena berreskura dezan eta etorkizunari buru argiz eta bihotz fidakorrez begira diezaion»¹⁴. Horretaz gainera, *Urte Santua* iragartzean, beste zerbait ere eranstean du Aita Santuak, inoiz ere ahaztu ez dakigun *Jubileuaren* alderdi espirituala ezin dela bereizi alderdi sozialetik: «Baldin Itxaropena izan nahi badugu, mundu osokoak senide gareneko zentzua berreskuratu beharra dugu, begiak itxi gabe gero eta ikaragarriagoa den pobrezia aurrean, pobrezia horrek milioika gizaseme eta emakumeri, gazte eta haurri giza duintasunez bizitzea eragozten diolarik»¹⁵.
20. Graziazko gertakaria eta Elizaren eraberrikuntza, hona hemen bi ezaugarri nagusiak *Urte Santu* hau elkartasun-espirtuaz eta gure errealitate zehatzarekin konpromiso solidarioa izanez bizitzen laguntzeko. Horrela jabetuko gara Jainkoaren grazia duela bide-aurreko eta bidelagun «sinesmeanean ekintzaile, maitasunean saiatua eta itxaropenean iraunkor» (ik. 1Ts 1,3) dabilen herriak.

2. Elizbarrutiko Jubileua: Elizbarrutiaren 75. urteurrena

21. Ospakizun unibertsal hau, teoria hutsean eta geografiaz urruti ez gelditzea nahi du Aita Santuak, baizik eta prestaketa izatea, fedea bizkortuz, Itxaropena bizituz eta maitasuna eginkor bihurtuz, *Jubileu-aldi* hau Eliza partikularretako pastoraltzarako ere garai esanahitsua izan dadin. Horregatik, *Jubileu* unibertsala eta Donostiako elizbarrutiaren *diamantezko ezteiak* ospatzeko *Jubileu* partikularra aldi berean egokitzeak are eta

handiago egiten du gure pozkida eta sendoago gure konpromisoa. 1950ean eratu zuten gure elizbarrutia; beraz, 75 urte betetzen du. Esanahi handiko une izan daiteke denontzat, data biribila, gogoangarria eta, batik bat, gogotsu bizitzeko.

22. Jubileu-urteak graziazko unetzat eta eraberritzeko egokieratzat bizi izan ditu beti herri fededunak. Balia gaitzen egokiera honetaz espirtualki eraberritzeko, geure fede-konpromisoa indartzeko eta parrokian eta elizbarrutian batasuna sendotzeko. Horrela, Itxaropenez aurre egingo diegu garai honetako erronkei eta kemena bizkortuko dugu Gipuzkoan testigantza egin eta Ebanjelioa hots egiten jarraitzeko.
23. Pelegrinazioa, bihotz-berritzea, otoitza eta konpromisoa ditugu giltzarriak Eliza osoko eta elizbarrutiko *Jubileua* pozik bizitzeko. Urrutira iristeko, ibilaldia- ren helmugara iristeko bidean elkarrekin joatea adierazten du pelegrinazioak. Bekatari garela eta mugatuak, eta Jainkoaren beharrea garela oroitarazten digu bihotz-berritzeak. Adiskidetzeko sakramentuak prestatuko gaitu eta lagunduko digu biziera berri eta berrituari ekiten, fede-bidean indartua. Beharrezkoa den bakarrari begira bizitzen (ik. Lk 10, 42) lagunduko digu otoitz egiteak eta Jesu Kristoren Jainkoarekin elkarketa pertsonala izateak. Munduak eta Elizak dituzten premiekiko konpromiso zehatza izatera garamatza beti eragingarri den otoitzak; horrek uxatu egingo du gure axolagabekeria eta zaurgarrienen behar larriei begira jarriko gaitu, elkartasun konprometitua izatera bultzatuz.
24. 2025. urtean zehar ekimen zehatzak izango dira gure elizbarrutian, Jubileu-urte *Santu* hau dela eta. Partehartze eta inplikazio ahalik eta gogotsuena izatea eskatuko nizueke denoi. Garaiz emango zaizue halakoen berri. Era horretan, elkarteloturak gero eta estuagoak izango ditugu, elkar gogoberotuko dugu fedearen testigantza egiteko eta testigu hobeak izango gara gizartearen erdian. Sinestunago izateko egokiera bikaina dugu, beraz, *Jubileua*, bizi dugun uneaz jabetzeko eta, zalantzarik gabe, misiora bultzatzen gaituen Itxaropenean eraberritzeko.

25. Ontzat hartu du Aita Santuak Jubileu-urte honetan Artzain Onaren katedralekoak ez ezik Arantzazuko eta Loiolako santutegietako *Ate Santuak*

13 Ik. San Joan Paulo II.a, *Novo millennio ineunte* (2001), Gutun apostolikoa 1. zk.

14 Frantzisko, *Mons. Rino Fisichella Gorenari Gutuna 2025ko Jubileurako*, 2022ko otsailaren 11an.

15 *Ibid.*

irekitzea. Eta, orobat, Mons. Jose Tolentino de Mendonça kardinala, Kultura eta Hezkuntzarako Dikasterioko Prefektua bidali du bere izenean, elizbarrutiko *Jubileuari* ospetsuki hasiera emateko. Elizbarrutiko *Jubileuaren* hasiera eta katedraleko *Ate Santuaren* irekiera 2025eko urtarrilaren 6an izango da, Epifaniako Festaburuan, Eukaristia os-

pakizunaren barruan, arratsaldeko zazpitan. Arantzazuko santutegiko *Ate Santua* urtarrilaren 19an irekiko da eta Loiolako santutegiko *Ate Santua* urtarrilaren 26an. Martuteneko espetxean ere irekiko da Ate Santua. Biziki gonbidatzen zaituztet hotsandiko ospakizun hauetan eskuhartzera eta dagoeneko abian jartzera «itxaropenean erromes» izanez.

II. ALDIAN ALDIKO EZAUGARRIAK AZTERTU

26. Garai bakoitzak bere ezaugarri eta azpimarrak ditu. Gure garaian bizitzea egokitu zaigu guri. Kristauok giro sozio-kultural jakin batean bizi gara. Horixe dugu geure testuingurua, bizitzeko eremua, baldintzatzen gaituen ingurumaria eta, aldi berean, bultzada eta erronka dugun ingurumaria. Alor eta aldi horretan loratzera deitzen gaitu Jaunak eta beraren testigu izatera (ik. Eg 1, 8). Azken hamarkadetan bizi izan ditugun garaiak ez bezalakoak dira oraingo hauek; bizi-lastera, galderaz jositako garaia eta oso aldakorra maila guztietan. Nahasiak dira, bai, gure garai hauek, baita, aldi berean, liluragarriak.
27. Horregatik, garrantzitsua da errealitate konplexu honen erdian era egokian egotea, gu geu egiaz garena kontuan izanik; aldien ezaugarriak aztertu behar ditugu (ik. Mt 16, 2; GS 4) eta Espirituak gaur egun Gipuzkoako Elizari diotsona entzun (ik. Ap 2, 7). Bai garrantzitsua dela entzutea! Errealitateari ez diogu soziologoaren begiz begiratzen, baizik eta diszernimendu edo bereizmenaren ikuspegitik, ikasle-misiolariaren begiz¹⁶. Fedearen ikuspegitik, zientziaren ikuspegitik baino gehiago. Garrantzitsua da ahalik eta errealisten izatea, orainari eta geroari beldurrik gabe aurre egitea, iraganaren oroimenez, nostalgiaz, egon gabe. Sinestunak badaki Jauna dela historiaren jabea, eta horretan du konfiantza; une honetan ere bidelagun dugu Jauna, beti izan dugun bezala. Horrela, oinak lurrean eta begiak zeruan ditugula, diszernimenduak lagunduko digu Espirituak iradokiko dizkigun etorkizunerako biderik hoberenak ebakitzen, apalki baino ilusio berriz: «Gidari segurua dugu Spiritua Santua, eta haren ahotsari antzematen

ikastea da gure lehendabiziko lana, denengan eta gauza guztietan mintzo baitzaigu»¹⁷. Bizi dugun une berriaz jabetu beharrean gara, zein testuingurutan gabiltzan eta zein zailtasun eta erronka aurkezten digun; eta are beharrezkoago, bilatzea, Jaunaren eskutik, zein elementu argitsuk lagunduko diguten bide berriak amesten eta ibiltzen, hemengo gure kristau elkarteak aurrera egin dezan. Zenbait pintzelada eskaini nahi nizueke, bizi dugu testuinguruaz.

1. Mundu osoko eta Europako testuingurua

28. Aldaketa handiak gertatzen ari dira gure garai honetan. Zenbait pentsalarik dioenez, «aldaketa garaia» baino gehiago egiazko «garai-aldaketa» bizi dugula. Gerrateak —beti izan badira ere— gero eta gertuago sumatzen ditugu orain eta, kezkarriago den beste zerbait ere ikusten dugu: giro gatazkatsua mundu osora hedatekeela. Gerrate nuklearra gerta daitekeela pentsatzeak kezkatzen gaitu; gainditua zegoelakoan geunden, baina hor dugu mehatxua. Badirudi ez dugula sekula ikasiko. Frantzisko Aita Santuak berak behin baino gehiagotan ohartarazi gaitu dagoeneko Hirugarren Mundu Gerratea nozitzen ari garela, «zatika, bederen»¹⁸. Tentsio-egoera honek eragotzi egiten du nazioen garapen ekonomiko egokia eta jasangarria. Denek nozitzen dituzte horren ondorioak, baina batez ere naziorik pobreenak. Pobreziarekin batera, gerrateak dira, nola handiak hala txikiak, milioika pertsona, bizibide eta etorkizun hobe bila, tokiz aldatzera eta emigratzera behartuak

16 Ik. Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku Hitza (2013), 50. zk.

17 Frantzisko, *Gotzainen Sinodorako XVI. Ohiko Batzar Orokorra irekitzean egindako hitzaldia*, 2024ko urriaren 2an.

18 Frantzisko Aita Santuak *Zientziarako Pontifize Akademiako partaidei egindako hitzaldia*, 2022ko irailaren 10ean.

egotearen arrazoia¹⁹. Halako egonkortasun ezak zaurgarri bihurtzen gaitu eta desafio egiten dio gure Itxaropenari.

Ekonomia «buru izatearen» arriskua

29. Ekonomia da buru munduko eszenatokian; berak markatzen ditu politikak eta erabakiak. Arrisku handia dakar horrek, gizadiari zenbaki estatistiko eta irabazien ikuspegitik baizik ez begiratzekoa, zenbakien atzean gizakiak, muga gabeko duintasuna duten subjektuak, daudela ahazturik²⁰. Benedicto XVI.ak, ekonomi krisi handiaren atarian, ohartarazi gintuen «munduko ekonomiaren disfuntzioen arrazoi estrukturalak» eta dei egin zigun «hazkunde-ereduak zuzentzera, ditugunak ez baitirudi egokiak direnik ingurumenari zor diogun errespetua bermatzeko»²¹. Ekonomialariei mintzatzean, hau oroitarazi zien: «Ekonomia eta finantzak ez dira berentzat bakarrik; tresna dira, medioa. Horien helburua pertsona da eta pertsonaren duintasuna osorik egikaritzea. Hau da salbatzea komeni den kapital bakarra»²². Duela gutxi, Frantzisko Aita Santuak ohartarazi gaitu politika ekonomiaren mende egoteak dakarren arriskuaz²³, «heriotza dakarren ekonomia» dela esanez, eta «baztertuak» sortzen dituen sistema ekonomikoaren arriskuaz. Munduko testuinguruan, analistek diotenez, honezkero ez du Europak markatzen norabidea, eta geopolitikan eta geoekonomian alde batera gelditzen ari da beste nazio boteretsuen aurrean, hala nola Estatu Batuak, Txina, Errusia, India eta goraka ari diren beste nazio batzuen aurrean. Ekonomia eta merkatuak, enpresa teknologiko handiak eta energia-hornitzaileak beste toki batzuetan dabil-tza. Hori dela eta, Europako ekonomia gero eta ahulagoa da.

Migrazio-fluxuak

30. Migrazio-fluxua gure aldien ezaugarri handia da gaur egun, gizadiak, oro har, eta zehazki mendebaldeko naziook dugun erronkarik handienetako bat; baina gure nazio hauek ez dute konponbiderik aurkitzen, bizitzeko egokiera eta ongizate bila datozen etorkinei harrera egiteko eta oparoagoa den gure gizartean txertatzeko; hala ere, halako etorkinen beharra du gure gizartean. Milaka gizon-emakume etorkin ate joka dugu, gure gizarteari, gure kulturari eta, batez ere, halakoei harrera egiteko eta gure artean txertatzeko ahalmenari desafio eginez. Gero eta haur gutxiago jaiotzen den eta gero eta zahartuago dagoen mendebaldeko gure gizarteak ez du izango ordezkatzeko inor etorkina izan ezik. Zalantzarik gabe, hurrengo hamarkadetan oraingoa baino multikulturalagoa izango da gizartea, eta horrek eragin handia izango du gerora. Espero izatekoa da multikulturalitatea kulturartekotasun emankor bilakatuko dela. Etorkinei egokiera eta txertatzeko baliabideak eskaini ezker eta etorkinak konprometitzeko eta inplikatzeko prest egon ezker, dinamismo-iturri bihurtuko da immigrazioa ekonomiarentzat, gizartearentzat eta kulturarentzat.

Teknologien eragina

31. Gaur egungo munduan orain arte ikusi gabea zen aldaketa gertatzen ari da teknologia eta zientzien eraginez. Komunikazio-sareek gaur egun eskaintzen dizkiguten ahalbideak izugarriak dira. Teknologia eta etorkizun handikoa eta gero eta garatuagoa dagoen den adimen artifizialak eta robotikak, alor guztietan aplikatuak, hau iragartzen dute: etorkizunean ezagutza, lana egiteko era eta ekonomia gaur ez bezalakoak izango direla. Gero eta era zorabiagarriagoan aurreratzen ari da zientzia, astirik ere eman gabe gogoeta etikoa egiteko eta zientziaren aurkikuntzak aplikatzearen ondorioak epe ertain eta luzera balioztatu ahal izateko. Ekonomia- eta lan-alorrean teknologia izango duen eraginak eraldaketa izugarria ekarriko du etorkizunean. Frantzisko Aita Santuak behin eta berriz ohartarazi du eta eskaini irizpide bat hari horretan: «Mundu fisikoa ezagutzeko eta ulertzeko zientziek egiten duten eginahalean, ez dute inoiz be-

19 Ik. Frantzisko, «*Jainkoa bere herriarekin doa*». *Migrante eta Errefuxiatuaren 110. Mundu Jardunaldirako Mezua 2024*, 2024ko maiatzaren 24an.

20 Ik. Fede Doktrinarako Dikasterioa, *Dignitas infinita* Adierazpena (2014).

21 Benedikto XVI.a, *Diplomatikoen kideriari hitzaldia*, 2007 urtarrilaren 8an.

22 Benedikto XVI.a, *Europako Kontseiluko Garapen Bankukoaren batzarraren partaide zirenei hitzaldia*, 2010eko ekainaren 12an.

23 Ik. Frantzisko, *Laudato Si'* Entziklika (2015), 189. zk.

gien aurretik galdu behar, ezagutze hori pertsonen eta gizadi osoaren duintasuna zerbitzatzeko eta sustatzeko erabiltzearen garrantzia»²⁴.

Aldaketa kulturala

32. Mendebaldeko mundu europarrean gertatzen ari den aldaketa kulturalarekin batera dator hori guztia. Agerikoa da, mendebaldean, kristautasunaren eraginez, bizi izan den kultura eta balio-sistema eraldatuz etorri dela. Kristauen kopurua munduan handitzen ari bada ere, betidaniko kristautasuna izan duten herrialdeetan sekularizazioa geldo ezinezkoa da²⁵. Badi-rudi Europa bere «arima kristauaz» ahaztu egin dela eta, gainera, uko egiten diela Ebanjelioan errotuak diren bere sustraiei. Nagusi zen kristau kultura, *civitas christiana* delakoaren garaia joan dela. Europar gehienak *etsi Deus non daretur* (Jainkorik ez balitz bezala) bizi dira, kristautasuna gaingidutzat eman nahirik. Zenbait tokitan jarrera laizista militantea agertzen ari da, sinesmena, bizitzari buruzko ikuskerak kristaua agiriko bizitza publikotik baztertu egin nahi dute, zaharkituztat dutelako eta beren jarduerarako oztopoztat. Kristautasunaren eta guk ezagutu dugun bizitza-proiektuaren aurrean ikusten dugun axolagabekeria gero eta nabariagoa da.
33. Bestalde, Elizaren sinesgarritasuna ahuldua gertatu da, adingabekoekiko abusuen arazo lazarria dela-eta batez ere. Azken urte hauetan, O'Malley kardinalak, Adingabekoan Tutoretzarako Komisio Pontifizioko presidentek, esan duenez, egiaz «oztopo bihurtu da Ebanjelioa predikatze»²⁶. Aitortu beharrean gara Elizak ez duela beti ego-ki jokatu gai honi dagokionean, biktimei ez zela

24 Francisco, *Discurso a la Pontificia Academia de las Ciencias*, 2024ko irailare 23an.

25 2022ko abenduaren 31an munduko biztanleria 7.838.944.000 lagunekoa zen, aurreko urtean baino 53.175.000 lagun gehiago. Kontinente guztietan ikusten da ugaltze hori, Europan izan ezik. 2022ko abenduaren 31an katolikoak 1.389.573.000 lagun ziren, aurreko urtean baino 13.721.000 katoliko gehiago. Honetan ere, katolikoek ugalketa bost kontinentetarik lauetan gertatzen zen. Europan bakarrik urritua zen katolikoek kopurua: -474.000. Aurreko urteetan bezala, katolikoek ugalketa Afrikan gertatu zen (+7.271.000) eta Ameriketara (+5.912.000). Hauen atzetik datoz Asia (+889.000) eta Ozeania (+123.000). Munduan katolikoek % batz bestekoa ugartu egin da zertxobait (+0,03) aurreko urtekoaren aldean eta % 17,7ra igo da. Kontinentetara begiratuz gero, datu honen aldaketak oso txikiak dira (Iturria: Elizaren Urtekari Estatistikoa, 2022ko abenduaren 31an eguneratua).

26 Sean P. O'Malley kardinalarekin elkarrizketa *Vatican News*-en, 2022ko irailaren 30ean [<https://www.vaticannews.va/es/vaticano/news/2022-09/cardenal-omalley-los-abusos-son-un-obstaculo-a-la-predicacion.html>].

behar bezala entzun, ez zituela aintzat hartu ez artatu. Hala ere, azken urte hauetan jabetu gara arazoaren larriaz eta ahalegin handia egin dugu errotik ateratzeko. Bide benetakoa eta lehiatsua egin dugu, biktimek erdian jarritz, salaketarako bideak eta jokaera-protokoloak eskainiz, sentibilizazio-programak antolatuz, gure parrokiak eta zentroak toki seguruak izan daitezten. Donostiako elizbarrutian martxan jarria dugun "Arduratuz" programa horren adibide argia dugu; programa hori jasoko dute pastoralgile guztiek (apaizek, katekistek, irakasleek, ebanjelizazio-agentek...).

34. Gure kulturaren batzuetan egokitzen zail diren agenda berrien eta gizakiari buruzko kontzeptu berrien aniztasuna nagusitzen ari da. Aniztasuna berez balorea izanik ere, gehiegizko zatiketarako polarizazioa ez bada- gizarte arlo guztietan eragin handia duela eta gizarte kohesioa ahuldu egiten duela dakusagu. Testuinguru honetan gaur egun gutxiengoak den eliz elkarteak ikusten ari da, tradizioz kristaua zen gizarte eta kultura desagertzen ari direla begien aurretik. Zail gertatzen zaigu kristautasuna honezkero nagusi ez den giro kultural honetan kokatzea, eta beste aukera bat gehiago bezala agertzen den testuinguruan kokatzea, bere tokiaren bila eta, apaltasunez, bere esanahia bila dabilen beste aukera bat.

2. Gipuzkoan dugun testuingurua

35. Munduko eta Europako testuinguru honen erdian, gure Gipuzkoa maitean errealitateak baditu bere berezitasunak, gure herriaren izaera, gure kultura, gure historiaren gorabeherak eta azken aldiko gertaerak direla eta. Esan dugun guztiak du gure artean bere eragina eta erronka da guretzat. Baita zehatzago diren eta gertuago ditugun beste gauza batzuek ere.

Normaltasun demokratikoa

36. Bada zenbait urte gure gizarteak eta politikak giro lasaiagoa duela. Normaltasun demokratikoa, bere tentsio-une eta etenak izanik ere, bere bidea egiten ari da eta gure arreta beste gauza batzuetan jartzen uzten digu. Aurrerabide honek egokiera eskaintzen digu gure iragan latz eta mingarria atzean utzi eta gaingidetzeko, tentsio politiko bortitzak, eta batak bat ETaren terrorismoak markatua, zeinen jar-

duerak luzaroegi baldintzatu baitzuen dena. Zauriak hor gelditu dira, batez ere indarkeria zuzenean nozitu zutenengan. Oraindik ere zer egiteko asko da. Sendakuntza eta adiskidetzeta, geldi-geldi bada ere, gertatzen ari da, ekintza durunditsuei baino gehiago zeinu eta ekintza txiki eta apalei esker.

Nolabaiteko ongizatea

37. Bestalde, Gipuzkoan egoera ekonomiko eta ongizate orokor desiragarria dugula dirudi. Munduko ezegonkortasunak eta Europako ekonomia ahulak eragina dute, noski, gure artean; baina Gipuzkoako industriak modernoa, berritzailea eta aurrerakoia izaten jarraitzen du. Gure lurraldeko ekonomian zerbitzuak, komertzioa eta, bereziki, turismoa -horrek berekin duen guztiarekin- faktore garrantzitsuak dira. Indize edo adierazgarriek diotenez, gizon-emakumeen enplegu-tasa handia da eta, aldiz, langabezia-tasa txikia. Gure herri eta hirietan, orobat, bizi-kalitatea ona dela diote indizeek. Denok ordaintzen ditugun zuzeneko nahiz zeharkako zergei esker, esan dezakegu, hutsune eta gabeziak direnik ukatu gabe, nabaria dela gipuzkoar gehienok zerbitzu-kalitate handiak hartzen ditugula eta ongizate handia gozatzen dugula. Erakargarri gertatzen gatzaiakie inbertitzaileei eta bisitatzen gaituzten turistei, gure lur hau xarmagarria dela esaten digute.

38. Eginagatik distira, denak urre ez dira. Gure gizartean jende askok, portzentaje handi eta kezkarrian, ez du halako integraziorik eta ongizaterik bizi. Esan daiteke Gipuzkoan jende asko bizi dela ondo, integrazio-maila onean; baina, tamalez, beste jende asko, gehiegi, ez da hain ongi bizi. Gure probintzian %16a baztertua bizi da; horrek esan nahi du gure 116.000 herrikide baino gehiago hala bizi dela. Eta hori oso kezkarria da²⁷. Gainera, datuek diotenez, pertsona zaurgarrien egoera hobetu ordez, okertzen ari dela.

39. Enplegu-indizea handia izanik ere, askok ikusten du gero eta zailago gertatzen zaiela hilabete bukaerara iristea, lansaria murrizta dutelako. Erosketa-otarrea betetzea gero eta garestiago gertatzen da, baita oinarritzko hornidurak ordaintzea ere, eta lansariak ez dira horretara egokitzen. Gipuzkoan etxebizitza erostea amets huts gertatzen zaio familia askori. Alokairuan hartzea, berriz, egunean baino egunean zailago da ordaintzen. Pertsona zaurgarriek ia erabat ezinezkoa dute etxebizitza txar eta garesti bat alokatzea. Gure gizartean arazorik larrienetako bat etxebizitza lortzea da.

40. Ez dirudi oso erraza izango denik datozen hamarkadetan ongizate hori eta eusten dion finantzaketa-sistema mantentzea. Gizartean gero eta gehiago dira adineko pertsonak -eta halakoek gero eta zainketa gehiago behar dute eta pertsonen eskaini beharreko zerbitzu gehiago-; jaiotza-tasa, berriz, oso txikia da. Horrek guztiak esan nahi du orain dugun ongizatea mantentzea zail izango dela. Ongizate horren etorkizuna, beraz, oso zalantzazkoa da. Gipuzkoako gure gizartea nabarmen zahartua dago; gazte gutxi eta haur gutxi dago gure gizartean. Datuek diotenez, 97.000 dira 14 urtez beherako pertsonak; eta hori biztanleriaren %13a besterik ez da (EUSTAT).

Gizakien mugikortasuna

41. Gizakien mugikortasunak gero eta eragin handiagoa du gure probintzian. Alde batetik, bertako gazte gipuzkoarren emigrazioa dugu -orain ez dira hainbeste-; ikasketa onak eta lanbidea izanik ere, zailtasun objektiboak dituzte beren lansariak ordaintzeko moduko etxebizitza harturik, beren lurraldean bizitzen jarraitu ahal izateko. Zail gertatzen da talentudunak erakartzea edota bertan geldiaraztea. Gazte ez gutxi beste probintzia batzuetara edota beste nazio batzuetara alde egin beharra izaten du. Prestakuntza ona dute, mentalitate gero eta irekiagoa eta hizkuntzak jakiteak erraztu egiten die alde egitea. Beste aldetik, immigrazioa dugu, kanpotik datozenak. Oraingoz biztanleriaren %13,3a

²⁷ Biztanleen %6,4a baztertze moderatu egoeran dago; eta %9,7a baztertze larri egoeran. Gipuzkoako Foru Aldundiak eragindako Gipuzkoan Pobreziak eta Gizarte Baztertzeaz IV. Inkestak (2022) bildutako datuak dira; inkesta hori SIIS (Serv. de información e investigación social de Gipuzkoa) delakoak egin zuen. INEk emandako datuen arabera, Gipuzkoan erroldatutako biztanleriaren kopurua 2022an 724.428 biztanlekoa zen. Eta INEk berak ziurtatua du 2024ko uztailaren 1ean, Gipuzkoan erroldatutako biztanleria 730.835 lagunekoa dela. Honek alda dezake baztertze-egoeran dauden pertsonen kopuruaz Foru Aldundiaren txostenak emandako datua.

bestirik ez bada ere, hazten ari da²⁸. Immigrante asko integratzen ari da –eginahal handiak egin da, bere aldetik–, hezkuntza-munduan, lan-munduan, gure herri eta hirietako gizarte-talde ezberdinetan. Gipuzkoan jaiotzen diren hamar haurretatik hiruk ama kanpotarra dute. Aurki, aipatu ditugun arrazoiak kontuan izanik, pentsa dezakegu kultur aniztasuna eta mestizajea gero eta nabariagoa izango dela gure probintzian eta gure bizitzako eta laneko alor guztietan. Gure euskal kultura bera, gure euskara mintzatu ahal izatea, gure izaera tradizionala metamorfosi izugarria bizitzen ari da. Eta hori datozen hamarkadetan gero eta indartsuago izango da. Joera geldiezina da.

Gazte zaurgarriak

42. Mundu osoan ari gara migrazio-fenomenoa ikusten; mugetan horrek dituen ondorioak sentitzen ari gara gure artean ere. Migrazioari erantzun egokia emateko ahalmenik ez izateak handitu egiten du Gipuzkoan baztertze eta pobrezia zuloa. Bidasoa inguruan biltzen da migrazio-fenomeno hau, Europako beste nazio batzuetarako joateko asmotan. Badugu egoera horren berri eta gertutik ikusi ditugu egoera laugarriak eta heriotzak. Handiak dira pertsonen beren egoera araupetu edo erregularizatzeko dituzten oztopoak. Erroldatua ez egoteak ez du batere errazten babes sozialerako sistemak eskaintzen dituen zerbitzuetara iristea, eta hilabete luzetan egon behar izaten dute pertsona horiek zerbitzu beharrezkoenak hartzeko zain; eta halakoei oinarritzko harrera egiteko ere ahalbiderik ez da izaten ezta prestakuntza-prozesu serioari ekiteko ere, lanbidea izan dezaten eta bere etorkizuna planteatu ahal izan dezaten²⁹. Hain era zaurgarrian diren gazte hauen egoera irregularrak izengabe izatera daramatza, bakardadera, baztertuak egotera, kalean bizitzera, hara-hona ibiltzera, «bizibide bila». Horietako batzuk alkohola eta beste sustantzia batzuk kontsumitzeari ekiten

diote. Beste batzuk -gutxienak- delinkuentzian erortzen dira. Horrek, tarteka, ordena publikoko arazoak sortzen ditu gure herri eta hirietan. Halako gertaerek segurtasun ezaren sentipena ekartzen dute eta tentsioak, eta, ondorioz, xenofobia-agerraldiak izan daitezke, immigrante guztiak halakoak direla bidegabeki uste izateraino.

43. Halako jarrerak, gauzak erraztu ordez, arazoa zailago egiten dute. Erakunde publikoek errealitate honi konponbidea bilatzen saiatu beharra dute. On izango litzateke eta luzarora eragin-korrago, onean-onean denen lankidetzaz izatea, nola herritarrena hala talde politikoena, arazo honen zailtasunaz jabetzeko eta konponbide ahalik eta egokiena bilatzeko. Arazo larri honentzat irtenbide ordenatua aurkitzeko ezinbestekoa da koordinazio zinezko eta eraginkorra izatea tokian tokiko erakundeen artean, erakunde probintzietan, autonomikoetan, nazionaletan eta nazioartekoetan. Une honetan, bertan dugu erremedio ongi aztertu eta kontsentsuatuak lortu beharra, agian aldi baterako eta ez-perfektuak izanik ere, arazoa ahal den heinean arintzeko. Frantzisko Aita Santuaren dei profetikoa *onartu, babestu, sustatu eta integratzeko*³⁰ erakunde publikoentzat ere inspirazio gertatzen da. Argi dago honako hau: baldin halako egoera zaurgarri larrian dauden gazte horiei integratzeko eta dauden egoeratik ateratzeko egokierarik eskaintzen ez bazaie, ezin da espero izan egoera hobetuko denik; alderantziz, gaiztotu egin daiteke edota, gutxienez, kronifikatu.

Aldaketa kultural izugarria

44. Munduan nabaria den eta gure artean ere eragina duen beste ezaugarrietako bat (gorago ere deskribatua dugu munduko eta Europako testuingurua aipatzean) honako hau da: gure lurraldean ere kulturaren eta baloreetan gertatzen ari den aldaketa sakon izugarria. Aldaketa hori erronka da bereziki kristau elkartearentzat. Gipuzkoan, zalantzarik gabe, testigu gara zein izugarria den balore aldaketa, nola ari den ugaltzen ideien aniztasuna eta zein bortitza den sekulari-

28 INE (Instituto Nacional de Estadística) delakoak emandako datuak, 2024ko uztailearen 1ean.

29 Erakunde publikoek egiten dutenak haratago, aipatu beharra dago Gipuzkoako Caritas-en bidez, kristau elkarrekin, ahal duen heinean, beharrezko pertsona oro artatzen duela, dena dela halakoaren egoera, erroldatua egon nahiz ez egon edota zenbat denbora daraman gure artean.

30 Ik. Francisco, *Mensaje para la Jornada Mundial del Emigrante y del Refugiado 2018*, 2017ko abuztuak 15.

zazioa, lehen gehienek onartua zen kristautasuna eta honek munduaz duen ikuskera orain gutxienek onartua izateraino. Gizartean eta hezkuntzan nahiz kultura-munduan oraindik ere badu kristautasunak nolabaiteko esanahia, baina erlijioan ez. Gipuzkoako biztanleen %57ak katolikoa dela esan arren³¹, igandea eta sakramentuak (bataioa, lehen jaunartze, sendotza eta ezkontza) ospatzeari buruzko indizeak askoz murriztagoak dira. Garai bateko esaera hura: «Euskaldun fededun», iraganeko kontu bihurtu da, ikerketa historikoko gaia, artxiboetan, liburutegietan edota museoetan baizik aurkitu ez daitekeen zerbait. Gaur egun, Gipuzkoan, kristautasuna belaunaldirik zaharretan oraindik ere errotua egonik ere, kultura kontrakoa da askorentzat. Gure familietan, ikastetxetan eta kristau elkarreetan dugun frustraziorik handiena hau da: Jesu Kristoren berri emateko zailtasuna eta fedea eskualdatzeko zailtasuna. Beste gizarte-giro bat eta kultura-giro bat ezagutu duten gizon-emaume fededunen belaunaldi zaharretakoei zail gertatzen zaie onartzea inguratzen gaituen aldaketa sakon hau. Sinestunok konbentzituak gaude fedea eta kristau baloreak baztertu izanek erabat pobretu duela Gipuzkoako gure gizartea.

3. Gipuzkoako gure kristau elkarteak

45. Deskribatu dugun gizarte- eta kultur aldaketa sakonak eragin handia du Gipuzkoako gure kristau elkarteetan; hala ere, bere tokia hobeki hartu nahi luke, erronkei aurre egin eta aurrera jarraitu. Apalki, bai, baina denok elkar harturik eta Jainkoaren herriko kide garelako kontuan dugularik, izan ginenaz eta orain garenaz harro dagoen herriko kide. Gipuzkoan herri eta hiri guztietaraino hedatua dagoen Eliza eta bera- ren lotura-sarea, garai batean baino askoz ahalagoa izan arren, oraindik ere eraginkor da eta bere presentzia eta zerikusia du gure lurraldean. Ekarpene handia eskaintzen diote gure gizarteari gure parrokiek eta erlijioso komunitateek bere bizitza liturgiko oparoarekin, katekesiarekin eta karitate-ekintzarekin, haur eta gazteentzat diren eskola katolikoekin, belaunaldi berrien prestakuntzan eragina duten unibertsitateekin... ho-

rrela, erreferentzia eta kohesio soziala lortzeko elementu gertatzen dira gure gizartean. Arrazoi ezberdinak dituzten gure jarduerak erlijiosoak eta ospakizunak (igandeko ospakizunak, sakramentuak, hiletak...) eta toki ezberdinetan izaten direnak (erromeriak, pelegrinazioak, santutegiak, ermitak...) elementu sozializatzaile gertatzen dira eta agerian jartzen dute fedea bizirik mantentzen dela gure herri eta hirietan. Antzina baino indar txikiagoz, bai, baina hor mantentzen gara.

46. Autokritikoak izan behar dugu, bai, eta gure ahultasunak eta akatsak aitortu; hala ere, esan dezakegu Gipuzkoako gure gizartearen erdian Elizaren presentzia objektiboki gizarte horrentzat onuragarri dela. Gizartearekin elkarriketa izaten saiatzen gara eta ahaleginak egiten ditugu bertako erakundeekin lankidetzan aritzen, herritarren ongiaren bila. Gure herrikide askok hala aitortzen du. Gure laguntza- eta karitate-zerbitzuak ere aipagarriak dira, boluntarioen lanari esker eta gure kristau elkarreetako kideen emaitza oparoei esker gizarte-laguntzarako sare handia eta eraginkorra mantentzen baitugu, parrokiatako Caritasen bidez, probintziako lurralde osoan.

Elizbarrutiaren eraberritzeari bultzada berria

47. Joan den pastoral-urteaz geroztik, bultzada berria egin nahi diogu elizbarrutian beti beharrezkoa den eraberritzeari. Hau ez da gauza berria. Elizbarrutian, azken hamarkada hauetan, gogoeta zabala eginga dugu elkarrekin, ongi orientatua eta Eliza osoaren eta gure Eliza lokalaren irakaspena lagun harturik. Azken belaunaldietan, Kontzilioak eragindako eraberrikuntzan laiko askok hartu zuen parte, eliz artzainekin eta pertsona sagaratuarekin batera. Gure elizbarrutiko Elizak, orduan, agian, beste kemen eta parte hartze handiagoz, bazekien zer zen eta, nolabait, bizitzen zuen sinodaltasuna. Horretara dei egiten jarraitzen du Elizak eta, zalantzarik gabe, hazi egin beharko dugu etengabe horretan³². Bidean elkarrekin jarraitzen dugu.

³¹ Ikuspegi IEB (UPV/EHU), *Informe sobre la Diversidad religiosa en la CAE* (2024).

³² Ik. *Bukaerako Dokumentua*, Gotzainen Sinodoko XVI. Batzar Orokorra, *Sinodo-erako Elizaren alde, elkartasuna, partaidetza, misioa*, 2024ko urriaren 26an.

48. Une hauetan errealista izatea oso garrantzitsua dela konbentziturik gaudenez, berriz ere entzuteari eman gatzazkio eta gure elizbarrutiko kristau elkarteen egiazko bizitzari buruzko iritziak haztatu nahi izan ditugu. Horretako, gure parrokien eta elkarteen oraingo egoera ikertze-lanari ekin diogu, elizbarrutiko egoera orokorrak berriz ere jabetu nahirik eta sinestunari dagokion bereizmen edo diszernimendua elkarrekin hasteko asmoz. Espirituaren ahotsa entzunik, beharrezko, ezinbesteko eta egokien diren erabakiak hartuko ditugu aurki, Eliza, kopuruan murriztua eta indarretan ahuldua egonik ere, izan behar duena izan dadin, eta aurrerantzean ere bete ahal izan dezan, apalki, bere egitekoa, misioa: Gipuzkoan Ebanjelioa hots egitea.

Elkarrengana gerturatu beharra

49. Elizbarrutiko parrokia guztietan egin ditugu galdeketak eta elkarteak tokian bertan bisitatu ditugu, paperetan aipatzen zen oparotasuna eta bizitza gertutik ikusteko. 37 bisita egin ditugu, Gipuzkoako lurraldean barna. Elkarketa hauetan 1.200 pertsonak parte hartu izan du -gehienak emakumeak-; horiek dira parrokiatako pastoral arloetan lankide. Gure elkarteak era askotakoak direla ikusi dugu, kopurutan, adinean, ospakizunetan biltzen direnen kopurutan, taldeen tamainetan, sentiberatasun ezberdinak dituztenak, barne erakuntza handiagoko eta txikiagoak, giza baliabide eta material baliabide ezberdinekoak, bizitasun ezberdinekoak... Ukaezina da oparotasuna. Bereizmena, diszernimendua, egiten lagunduko digun gauza asko ikusten hasi gara aurreneko bilera hauetan. Garrantzitsua da ikuskera argi eta partekatua izatea, elizbarrutiko elkarteak gerora begira denentzako izango diren helburuak planteatuz.

50. Errealitatera gerturatu garenean, gure elkarte eta parrokiatan lankide den hainbeste pertsonaren lana sakonago ikusi eta balioztatu ahal izan dugu. Pertsona asko dago konprometitua, Elizaren misioa bere misiotzat harturik. Une eta errealitate horiek aditzera eman digute badugula, Jainkoari eskerrak, Itxaropena izateko motiborik. Izan ere, Gipuzkoako Eliza errealitate bizia da. Krisian ere badago, bai, gure inguruko gainerako elizbarrutietako Elizak bezala, nahiz iparraldean nahiz he-

goaldean; hala ere, krisia bizitzak berekin duen zerbait dela ulertu behar dugu sinestunok, zailtasunak gainditzera garamatzen krisia. «Hildakoek ez dute sukarririk»³³. Ezkertasunean eta etsipenean ez erortzeko deia egiten dizuet, zailtasunak eta ahultasunak ikustean. Eman diezazkiogun esker-rak Jainkoari «nonahi eta beti»³⁴, geure artean dugun halako kristau-bizitza oparogatik. Ezinbestekoa dugu begien aurretik ez galtzea eta beti gogoratzea norengan dugun jarria geure konfiantza eta Itxaropena.

51. Analisisetan agerian daude gure ahultasunak, baina baita gure indarrak ere. Kristau elkarteak kanpotik zerk mehatxatzen duen edota oztopoa zerk jartzen dion ikusi ahal izan dugu; baina horrek berak lagundu digu gure ingurumari kulturalak zein egokiera eskaintzen digun ikusten ere. Gure analisia gehiago zorrotz beharrean gara datozen hilabeteetan, antzeman ahal izateko zein ahultasun behar dugun zuzendu, gainditu edota birorientatu. Orobat, garrantzitsua da antzematea zer behar dugun sendotu, mantendu eta zaindu, gure analisisen arabera indargune direlako. Hala berean, benetako mehatxuei ere antzeman beharko diegu, halakoei aurre nola egin eta nola saihestu ikusteko eta azaltzen diren aukera edo egokiera horiek erakutsi dizkiguten bide berriak nola aprobeixatu eta aztertu ere ikusteko. «Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak; berdin daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak» (Is 40, 4).

Argazki bukatu gabea

52. Egindako lan horren ondorioz, gure errealitatearen eta bizi dugun unearen argazkia ateratzen ari da. Baliagarri dugu bereizmenerako, Espirituaren ahotsa aditzeko eta errealitate horri lagun egiteko era argian eta Itxaropenez. Ikuspen hau, nolabait argigarri izanik ere, ez da osoa, ezta hurrik eman ere. Elizbarrutiaren eraberritze-bidean beste urrats batzuk egitean gero eta argi handiagoa izango dugu geure errealitateaz, diszernimendua elkarrekin egiteko lagungarri.

33 Mons. Pedro Casaldáliga, CMF. *Carta circular desde São Félix do Araguaia* (2006).

34 Erromako meza-liburuko Prefazio askotan agertzen den esapide liturgikoa.

53. Beste ezer baino lehen honako hau esan nahi nizueke: gure ahultasunak bezain errealak direla gure indargune edo sendotasunak. Gure analisisetan agerian jarri dira Itxaropena izateko arrazoiak, azaltzen diren eta beheraka bultzatza gaitzaketen ahultasunen gainera. Bizi- eta Itxaropen- zantzuak sendoak dira eta aurrerantz eragin diezagukete, ezkortasuna gaindituz. «Zapuztaileak» eta «zoritxar-igarleak» aspaldidanik ari dira huts egiten. Guk, apalki, baina Itxaropen sendoz, uste on osoa dugu Jaunak hazarazten dituela gauzak, parabolako haziaren antzera (ik. Mk 4, 31-32). Fedea eta Ebanjelioa ditugu geure indarririk handiena. Beti berria den iturri horretan edaten du gure Itxaropenak (ik. Jn 4, 5-26)

Zenbait ahultasun

54. Gure gizartean beste erakunde asko bezala, gure elkarteak ahuldurik daude elkartekideak urritu direlako eta adinean aurrera egin dutelako. Biziki sentitzen dugu apaiz eskasia eta elkartean nahiz elizbarrutiko zerbitzuetan buruzagi izan daitezkeen pastorgile ongi prestatuen eskasia. Ordaindu ezinako zerbitzua eskaintzen duten apaiz erlijiosoak eta bizitza sagaratu oro, garai batean ikastetxeetan, karitate-zerbitzuetan, auzotako ekintzetan aritzen ziren sagaratuek beren indarrak beste nolabait bideratzera behartuak gertatu dira eta beren presentzia berrantolatzen. Gure elkarteak apaizen ardurapean daude gehienbat, eta beste elkartekide apur batzuen ardurapean; horrek esan nahi du erantzunkidetasunean aurrera egin beharrean garela. Boluntario-lanerako eta gure ekintzetako ekipoen lanerako ordezkioak aurkitzea gero eta zailagoa da. Eliz subjektua ahula da. Prestakuntza-taldeak eta apostoluzarako taldeak urritu egin dira aldien joanean, eta beste batzuk sakabanatuak dabilta, bide-laguntza egokirik gabe. Beste hau ere airtortu beharrean gara: immigranteak gure artean gero gehiago izanik ere, oraindik ez daude erabat integratuak gure elkartean bizitza eta taldeetan. Gure kristau elkartean ekonomia ere, zenbakien ahultasunaren ondorioz, oso egoera estuan dago.

55. Larria iruditzen zaigu sinesmenaren aurrean eta eliz erakundearen aurrean nabari dugun axolagabetasuna. Oso kezkarri gertatzen zaigu.

Esana dugu, erronkarik handiena eta gure ahultasunik eta frustraziorik mingarriena honako hau dela: belaunaldi berriei Ebanjelioa eskaintzeko eta fedea eskualdatzeko indarririk ez izatea eta bide egokirik ez aurkitzea. Zail gertatzen zaigu gazteekin konektatzea eta lekukoa eskualdatzea. Kristau elkarte barruan sortutako zenbait zatiketa gainditzeko zailtasuna ere izan daiteke ahultasunak areagotzearen arrazoa. Ikus dezakegunez, aisa ikusten dituzte gure akatsak eta salatzen gure ahultasunak. Horretan saiatuko bagina, askoz gehiago azalduko litzateke. Erne ibili beharra dugu. Batzuetan ez da erraza, gauzen alderdi iluna besterik ikusten dutenak saihestea. Agian, gure ahultasunik handiena honako hau da: etsipenean erortzeko tentazioa. Zerk lagundu diezaguke tentazio hori gainditzeko? Ba, bihotz-berritzeko eta norbera eta elkarte espiritualki bizkortzeko dei ozenari erantzuteak.

Sendotasunak edo indarguneak

56. Zentzu kritikoari eta beharrezkoa den errealismo dosiari uko egin gabe, eraikitzaile hobeak izango gara, baldin geure puntu sendo eta argitsuenei begiratzen badiegu. Geure sendotasunak ere -eta asko dira- hor ditugu, Jainkoari esker. Beti aurrean jarriko dugu lehendabiziko sendotasuna, garrantzitsua; geure baitan bizirik dugun Ebanjelioaren indarra. Gure herriko gizonemakume askok bizi duen fedearen indarra da; halakoek, zailtasunak eta ahultasunak gainditurik, otoitz egiten jarraitzen dute, federekin bat datorren bizitza daramate, horretan aurkitzen baitute kontsueloa eta Itxaropena. Gure herrian oraindik ere erreserba espiritual handia dugu, Ebanjelioari buruzko testigantza naturaltasunez ematen duelarik. Parrokietan lankide den jendeaz gainera, fede alaiaren eta Itxaropenaren testigu handiak dira Elizaren bizitzan parte hartzen duten fededun horiek, parrokiarekin lotura handi nahiz txikia duten horiek. Badira prestatuntzarako kristau-taldeak; halako taldeetan aurkitzen du askok fedea bizitzeko elkarte-giro beroa. Kimu berriak ere azaltzen ari dira gazte eta helduekin egiten den zenbait ebanjelizazio-esperientzian, hala nola, asteburuko erretiro trinkoetan, parte-hartzaileengan sinesmena sustatu eta berrituz.

57. Gure elizbarrutiko Elizak eta gure parroki elkarrekin pertsona asko dute ekintza ugarietan inplikaturik: goraipagarria da halakoen leialtasuna, erantzunkidetasuna, testigantza, konpromisoa, zerbitzu-jarrera, eraspina, diszernimendurako irizpide egokia... Gure indarrik ederrenak, zalantzarik gabe, pertsonak dira. Azpimarratu eta aitortu beharrekoa da, bereziki, gure elizbarrutiko Elizan emakumeak tradizionalki duen presentzia. Gero eta sendoagoa da presentzia eta inplikazio hori lan-postu nabarmenetan, zerbitzuetan, ekipoetan, kontseiluetan. Eskertzekoa da, orobat, emakume sagaratuen presentzia zerbitzu askotan, ebanjelizatze-lanetan nahiz parrokiatan nahiz ikastetxeetan nahiz auzoetan. Egin berri dugun analisiak agerian jarri du, hala berean, sinodaltasunean eta partehartzean hazten ari garela, diszernimendu-lana eta bilaketa lana egitean, eta, horrela, sendotzen ari garela geure harreman-sarea eta elkartasuna. Ez nuke balioztatu gabe utzi nahi analisiak hauteman duen gure sendotasun handienetako bat: Elizak herrietan eta landa-guneetan duen presentzia iraunkorra. Duela gutxi arte, denekin egoteko eta denei erantzuteko gogoaren ezaugarri nabarmena izan da. Etorkizunean hori zailago izango da; hala ere, Espirituaren sormenak bultzatuko gaitu bide berriak bilatzera, gure elkarte horiei zerbitzua eskaintzeko. Pobrezia- eta migrazio-egoeretan Elizak duen presentzia eta ematen duen erantzuna, gaixoekiko, adineko pertsonekiko, espetxeratuekiko pastoraltzan, Caritasen lanean oro har, Elizak duen presentzia argi-iturri eta erreferentzia da erakunde publikoentzat eta gizarte osoarentzat. Gure lurraldean badugu beste sendotasun handi bat: denean hedatuak ditugun azpiegitura sendoak; asko errazten ditugute horiek ebanjelizatze- eta karitate-lana.

Mehatxuak

58. Bada, ordea, kristau elkartean eragin ezkorra duen zenbait faktore kanpoko. Ongi identifikatzen saiatu behar dugun oztupoak dira, ahal dugun heinean saihesteko, gure misioa eta erantzun-ahalmena ahaldu ez dezaten. Giro kulturalak erakartzeko indar izugarria du. Hori dugu geure erronka handia: gure ingurumariako kulturaren presioa egiten duten gaiak gu ere herrestan eramatea. Honek nerabe eta gazteengan du

bereziki eragina. Dena berehala lortu nahiak, berehalakotasun kulturalak, mehatxatzen gaitu; gogoeta murrizten du horrek, baita bizitzaren planteamendu sakon eta erlijiosoa. Gure kultura eta giroa sekularizazioak mehatxatzen gaitu. Baita halako «mundutartzeak» ere, «munduak» dituen balioak eta planteamenduak (arrakasta, ospea, eraginkortasuna, politikoki egoki dena...) onartu eta bizitzera bultzatzen gaituelarik. Horrek disolbatu egiten gaitu ingurugiroan, eta geure nortasun ebanjelikoa eta ezten profetikoa galtzera garamatza. Bestalde, jaiotze-tasa urritzea eta, ondorioz, biztanleria zahartzea ere mehatxu objektiboa dugu. Fede-bizitzara deituko geniekeen haurrak eta gazteak gero eta gutxiago izatea dakar eta, orobat, eliz konpromisoa ministeritzan edota erlijioso-bizitzan gauzatzeko bokaizioak ere urritzen.

59. Bada beste mehatxu bat, axolagabetasunak eta askok Elizari buruz duen irudi ezkorren pisuak (adingabeekiko abusuak, ondasunen eta ondarearen kudeaketa...) sortua. Zenbait sektore kritikok horixe bultzatzen du: atzera egin beharra dagoela uste izatearen mehatxua da, fedea askatasun handiagoz bizitzeko orduan eta, batik bat, ebanjelizatze eta besteei fedea auzari proposatzeko orduan beldurra, konplexua eta lotsa sentitzearen mehatxua. Geure Itxaropenaren arrazoiak ematera desafiatzen gaitu. Kulturarekin elkarrizketa izateko dugun zailtasuna nabari da horretan guztian. Mehatxutzat hartu beharra dugu, orobat, bazterte- edo deskartekultura, balio ez duena, emankor ez dena, problemaren bat dakarrena bazterrean uztera bultzatzen duen kultura. Kultura hau mehatxu da Elizak denak onartzeko duen misioarentzat eta biziaren defentsan hots egiten duen mezu kementsuarentzat. Mehatxu horietako batzuk ez dira gure ardurapekoak, hala ere ikusi beharra dugu nola saihestu; beste batzuei kontra egin beharko diegu, arrazoi, proposamen eta erantzun proaktiboak bilatuz.

Egokierak edo aukerak

60. Errealitatea analizatzean eta horri buruz gogoeta egitean, egokiera edo aukerak ere azaltzen dira, eta horiek Itxaropenean haztera garamatzate, eta honako ezaugarriak izango dituen Eliza

eraikitza: elizbarrutiko Eliza irekia, solidarioa, testigantza-egilea, bere ondare historikoa eta kulturala estimatzen duena eta duen altxorrik handiena, Jesu Kristo eta beraren Ebanjelioa, eskaintzen jarraitu nahi duen Eliza. Gaurko gizartean nabari dugun espiritualtasun-egaria (hitza bere zentzu zabalean harturik) agerian jartzen du irekia dagoela gizartea haraindikotasunera, transzendentziara. Egokiera izan daiteke hori kristau elkarte osatzen dugunontzat, zeren gure fedea bake- eta zentzu-iturri horixe eskaintzen baitu. Bestalde, Eliza sinodaltasunari ematen ari zaion bultzada egokiera ona dugu elkarte biziago eta parte-hartzaileago eraikitzeko, elkarri entzunik eta elkarrekin diszernimendua egirik, nork bere dohainak eskain ditzan, erantzunkidetasuna barneago sentitu eta elkartasuna bizi dezagun. Gure elkarteetara immigranteak etortzea ere ezaugarri eta egokiera handia da. Aberastasuna, zalantzarik gabe. Abegi hobea egingo duen Eliza izatera gonbidatzen gaituzte, gertuago egongo den eta integratzaileago izango den Eliza izatera, kultura aniztasuna onartzen duen eta aurpegi eta ahots ezberdinek aberastuko duten Eliza. Kezka espiritual ezberdinei erantzun nahi dieten talde eta apostolutza-era berriak sortzen ari dira. Bedeinkazio dira hala-koak Elizarentzat, pastoral jarduera bizkortzen eta indartzen baitute. Garrantzitsua da halakoak balioztatzea eta halakoei lagun egitea.

61. Harandikotasunerako, transzendentziarako, atea ditugu geure usadioak, ospakizunak, erromeriak, gure ondare arkitektoniko eta artistikoaren edertasuna. Historiaz eta edertasunetz betetako fede-azalpen hauek gaur egun ere medio indartsuak ditugu ebanjelizaziorako. Belaunaldi berriak, ez orain artekoak bezain baldintzatuak eta, bestalde, esperientzia berriak jasotzera irekiak, egokiera ona izan daitezke halakoei Ebanjelioa iragartzeko. Lur joria izan daitezke Ebanjelioak sustraiak bota ditzan. Elizaren gizarte-ekintzak (Caritas eta abar) atek irekitzen dizkio kristau elkarteari gure gizartean. Elizaren Irakaspen Soziala azaltzeko egokiera eskaintzen digu: Irakaspen horrek inspiratzen gaitu, Ebanjelioa oinarri duelarik, gizarte zuzenago eta solidarioagoa eraikitzeko. Komunikabideek eskaintzen diguten egokiera hobeki aprobetxa dezakegu, zalantzarik gabe. Ongi erabiliz gero,

laguntza ederra izan ditzakegu Ebanjelioak duen Itxaropen- eta maitasun-mezua askori helarazteko eta gure kristau elkarteetan egiten eta bizitzen dugun hainbeste gauza ederren berri emateko. Analisisetan azaltzen diren eta oso kontuan izan behar ditugun egokieren artean, hor dugu orain jubilatzen ari diren gizon-ema-kumeen kasua: adin onean daude eta osasunak laguntzen die edozein eratako lanak egiteko. Beren bizitzako une ederrean daudenez, gonbida ditzakegu lankidetzan aritzera, konprometitzera, zenbait lan egitera eta gure parroketan nahiz elizbarrutiko zerbitzuetan erantzukizunak beren gain hartzera.

Protagonista, Jainkoa

62. Munduko testuinguruaz eta geure inguruakoz mintzatu gara. Aldaketa handien olatu artean, Gipuzkoako Eliza den txalupa txikiak itsasora atera nahian jarraitzen du. Itxaropenak eragiten digu, eta besteei Ebanjelioaren berri emateko gogo onak, beste ezerk ez. Gure indar ahulen eta misioaren handitasunaren arteko proportziorik eza nabaria da. Uste ona Jaunarengan jarririk, egoerari aurre egitera aterako gara, David Goliaten aurrera bezala. Oro gaitetzen Itun Zaharreko pasarte hartaz: Goliaten aurka borroka egitera deitua ikusten du Davidek bere burua, Goliatek «Jainko biziaren gudalosteari erronka egin diolako» (1Sam 17, 36); Jainkoari berri egin dio desafio. Gudu-jantzi astunak jarri nahi izan zizkieten Davidi, baina horrela ezin zen joan erraldoiaren aurka. Halako erraldoia menderatzeko bi gauza behar dira: nor bera den bezala borrokatuz, berea duenaz baliatuz, bereak ez dituen gudu-jantziak hartu gabe, eta, bestalde, bere alde duen Jainkoarengan uste on osoa jarritz. Badakigu nola bukatu zen historia hori: David nagusitu zen. Jainkoa izan zen garaile!

63. Gure testuinguruaz mintzatzean deskribatu dugun errealitatea amets hutsala gerta dakiguke. Ez dugu mundua aldatuko. Ongi dakigu. Horregatik «ez gabiltza gauza handien atzetik, ez neurritz gaineko atzetik» (Sal 131[130],1). Jainkoa da misioaren jabe. Berak daki nola ebaki bideak historian barna, baita gu oztopo gaituenean ere. Batzuetan, adorea eta Itxaropena ezerezten diguten etsipena eta frustrazioa honengatik datozkigu: Jainkoaren

indarrean baino geure ahalmenean konfiantza handiagoa dugulako. «Sekulartasuna nagusitzen zaigu» historia honetako protagonistak gu garena iruditzen zaigunean. Ez gara protagonistak. Jainkoa da protagonista. Berak inork baino gogo handiagoa du bere asmoak aurrera ateratzeko. Izan gaitezen apalki Jainkoaren lankide (1Ko 3, 6) guk dugunarekin, guk ditugun indar urri hauekin, Bera lanean ari dela jakinik, bere erara ari dela, gure indar apalen lankidetza onartuz. Gauza beste era batera, beste ikuspegi batetik, beste konfiantza batez ikusten laguntzen digun Itxaropenak eusten digu. Nire kongregazioaren fundatzaileak, san Antonio Maria Claret-ek, esan ohi zuen, Jainkoarekiko Maitasunez sutua dagoen pertsona ez duela «ezerk ere ikaritzen»³⁵. Frantziskok ere adoretzen gaitu eta sutuki esaten: «Desafioak gainditzeko dira. Errealistak izan behar dugu, baina alaitasuna, ausardia eta eraspen itxaropentsua galdu gabe. Ez diogu inori utzi behar indar misiolaria ostu diezagun!»³⁶. Jaunak egingo digu argi eta emango digu indarra, behar ditugun erantzunak aurkitzeko eta bizkortuko du guregan sormen- eta leialtasun-dinamika berria.

64. Aurren aurrenik, entzun egin dugu. Aldien zantzuak aztertu nahi izan ditugu eta Jainkoak iradokitzen diguna jaso. Errealitatera hurbildueta zein testuinguru dugun ikusi dugu, zein tokitan dugun erantzuna eman beharra, horretara deitzen

baikaitu Jainkoak. Errealismo-ahalegin handia egin dugu, Gipuzkoan bizi den kristau elkarteak nolako bizitasuna duen ikusteko eta zer garen ikusteko. Hasierako irudi honek bereizmena, diszernimendua, egiten jarraitzera gonbidatzen gaitu. Honako galdera hauek egin behar dizkiogu geure buruari: Errealitate honetan zer esaten digu Jainkoak? Zertara dei egiten digu kristau elkarte osatzen dugunoi? Nola erantzun hobeki, Eliza garen aldetik, geure bokazioari? Datoren hilabeteetan gauzak gero eta argiago ikusiko ditugu. Bailara bakoitzean gure anaia eta arreba batzuk hori egiteko ardura hartuko dute, prozesuari eragiteko. Diszernimendua eta erabakiak hartzea iritsiko da bere garaian. Hari honetan, *Jubileua* grazia-garaia izango da guretzat. Datoren urtean, Jainkoaren Hitzak eta Itxaropenak adore emango digute bidean eta lagun izango ditugu. Ez dago presarik. Garrantzitsuena hau da: bidean aurrera egitea, era ahalik eta egokienean erantzuneko tentsio sana izatea eta, batez ere, elkartasuna bizitzea. Hari honetan aurrera egiteko zenbait orientazio eskainiko dizuet ondoren, eraberritzeko hartzen ari garen etengabeko deia kontuan dudalarik, horretara gonbidatzen baikaitu Elizak. Hala berean, bidean aurrera egiten lagun diezaguketan kuestio batzuk partekatu nahi ditut zuekin, prozesu-eran eta izan daitezkeen amets-eran formulatuak, Gipuzkoan ebanjelizatze-lana egin dezagun.

III. BIHOTZ-BERRITZE PASTORALA ETA MISIOLARIA

65. Eliza osoak misiolari-jarrera har dezan eta «bihotz-berritze pastoral eta misiolaria»³⁷ izan dezan nahi du Frantzisko Aita santuak. Beti

beharrezkoa den eraberritze eta erreforma lozorroan ez uzten Elizari laguntzeko da dei hori, horretara deitua baita kristau elkarte bere eginkizun ebanjelizatzailea betetzen jarraitzeko. Eraberritzea ez da, bere horretan, helburua, baizik eta «kristau testigantza sutua beti egiteko medio etengabea, aldi bakoitzean ebanjelizatze eraginkorragoa errazteko medioa, elkartasun-espíritu emankorragoa proposatzeko medioa eta denekin elkarriketa onuragarriagoa bizkortze-

35 San Antonio María Claret, «Definición del misionero», Aut. 494. *Autobiografía y escritos complementarios* liburuan, Editorial Claretiana, Buenos Aires, 2008, 351.

36 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoan (2013) 109. zk.

37 Ik. Frantzisko, *ibid.*, 30 zk.

ko medioa»³⁸. Gipuzkoako pertsonen eta kristau elkarten fedea zaintzeko eta sendotzeko bultzagarriz hartzen dugu dei hori, Ebanjelioa hots egiten jarraitzeko.

1. Eraberritzearen giltzarria

66. Joan zen lan-urtean, otsailean, Donostiako Aldapeta Maria Ikastetxean izan genuen elizbarrutiko elkarketan bildu zirenei Elizan beharrezkoa den etengabeko eraberritzeaz mintzatu nintzaien. Edonoren arreta berehala pizten duten bi hitz badirela adierazi nuen. Bata, «dohainik» hitza da, bestea «berria» hitza. Erakargarri gertatzen zaigu berrikuntzaz hitz egitea. Gure kasuan, eraberritzeaz mintzo garenean, gauzak berri egiteaz ari gara, eta horrek motibatu egiten gaitu. Bide-ertzean geldi geratzea ez da guri dagokiguna. Erromesak gara. Bidari gara. Munduak planteatzen dizkigun erronkak sentitzen ditugu eta, ahul izanik ere, erantzun egin nahi diegu. Espiritu Santuak eragiten digu horretara, beti gure gainera bere arnasa isurtzen ari da, nahiz eta mugak, zailtasunak eta inguruabar nahasiak bizi ditugun. Eraberritzeaz mintzo garenean, egin nahi genukeen bidez ari gara, Berak bultzaturik, azken batean Berak gidatzen baitu historia. Itxaropentsu eta uste osoz goaz bidean.

67. *Aggiornamentoko* (eguneratzeko) bidea eta eraberritzearen bidea garbi markatu zigun Vatikanoko II. Kontzilioak honako bi gako edo giltzarri hauek jarriz: jatorrizko izaerara itzultzea eta aldian aldiko baldintza aldakorretara egokitzea³⁹. Bai nork berak bai elkarteak beti go-goan izan behar duen zerbait oroitarazi zigun: «Elizaren eraberritze oro, bere bokazioarekiko leialtasuna handitzean datzala funtsean»⁴⁰. *Ecclesia semper reformanda*⁴¹ (Eliza beti eraberritzen ari da) diogunean, Elizak beti bere izaerara itzuli behar duela esan nahi dugu. Horregatik, kristau izateko eta Eliz izateko bokazioari leial

gatzaizkion heinean egongo gara eraberritzeko bide egiazko eta benetakoa, misioari behar bezala heltzeko, horretara deituak baikara. Leial izateko, beraz, Ebanjeliora eta Tradiziora itzuli beharrean gara, izan behar duguna izaten jarraitu ahal izateko: bere bokazioa, izateko arrazoia eta bere identitate sakonena Berri Ona hots egitean ikusten duen Eliza⁴². Horixe da misiorako «sormena duen leialtasuna», eta horixe dugu beharrezko.

68. Lehen aipatu dudan elkarketa hartan beste haur ere esan nuen: aldien aldiko baldintza aldakorretara egokitzea ez dela azken modetara, gaur egun nagusi diren joeretara edota «politikoki egokia» deritzen horretara makurtzea edota egokitzea. Ez da «mundutartze» hutsa, hitz hori zentzu txarrean hartuta. Errealitateari fedearen ikuspegitik begiratzea da eta bizitzea egokitu zaigun une honetan Jainkoaren nahiari erantzutea, Elizarekin batean diszernimendua eginez eta Ebanjelioaren argitan. Gure munduak eta gure garai honek interpela gaitzan utzi behar dugu, historiaren Jaunarekiko eta Elizaren tradizio sendoarekiko leial izateari utzi gabe. Kontua ez da *beste era bateko Eliza* egitea, gure *Eliza bestelakoa* egitea baizik⁴³.

69. Eraberritze eta erreforma oro egiaz egin ahal izateko, beste ezer baino lehen barne erreforma egin beharra dago. Pertsonen bihotzean egin behar da, beraz, lehendabizi zinezko eraberritzea. Pentsaera-eta bihotz-berritzerik gabe, egiazko konbertsiorik gabe, ahalegin funtzionalak alferrikakoa gertatzeko arriskua du edota axalean gelditzekoa. Hona hemen, beraz, giltzarria: egiturak eta organizazioa eraberritzea zalantzarik gabe beharrezkoa da misiora begira, baina benetan garrantzitsua norberaren burua eta bihotza eraberritzea da. Norberak, besteekin batean eta Elizarekin elkartasunean, eraberritzerik egiten ez badu, gainerako guztia ezinezkoa izango da.

38 Frantzisko, 2015eko otsailaren 12an *Kardinalen batzari zuzendutako agurrean*.

39 Vatikanoko II. Kontzilioa, *Perfectae caritatis* Dekretua, 2. zk.

40 Vatikanoko II. Kontzilioa, *Unitatis redintegratio* Dekretua, 6. zk.

41 Ik. Frantzisko, *Errromako Kuriari Hitzaldia*, 2015ko abenduaren 21ean.

42 Ik. San Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitza (1975), 14. zk.

43 Ik. Yves Marie-Joseph Congar, *Verdadera y falsa reforma en la Iglesia*, Sígueme, Salamanka 2014, 213 (frantsesezko originala, 1950koa).

2. Eraberritzeko prozesuak

70. Gero eta oztopo handiagoak jartzen dizkigun kulturaren erdian dio kristau elkarteak aurre egin beharra fedea aurkezteko eta bizitzeko erronkari. Gizartean gutxitzen ari garela kontuan izanik, ez dirudi Ebanjelioa hots egiteko bidea aurrez aurreko borroka egitea edota polarizazio-jarrera hartzea denik, baizik eta, gartzaren antzera, zaporea diskrezioz emango duten pertsonen ekarpen apala; edota gau ilunean argi egiten duen eta ez galtzeko erreferentzia den zuziaren antzera. Guk egin beharrekoa proposamena, gonbidapena, da. Benedikto XVI.ak zioena hartuz, Frantzisko Aita Santuak dio: «inor bazterrean utzi gabe Ebanjelioa hots egiteko obligazioa dute kristauak, ez inori beste bete behar bat inposatuz, baizik eta bere pozkida partekatuz, helmuga zoragarria erakutsiz, oturuntza desiragarria eskainiz»⁴⁴, eta hau eransten du: proselitismoa eginez ez, «erakartzen»⁴⁵ saiatuz behar dugu hazi. Kristauak gaur egun kontrasterako norbait izan behar du, borrokarako norbait baino. Pazientzia izateak, Itxaropenaren testigantzak eta dohaintasunak, zerbitzuak eta ahulenekiko eskuzabaltasunak erakargarri egingo dute gure biziera. Hitzez dioguna bizitzaz betetzen dugunean, orduan gertatzen gara egiaz sinesgarri.
71. Dinamika hauxe bera erabil dezakegu Elizan egiten diren prozesuetan. Jaki onak bezala, su txikian hobeto egosten dira halako prozesuak ere. Prozesu lasai, baretsu eta apalek, oinarri sendoak dituztelarik, horiek bermatzen dute kristau-testiguak izatea, dabilzan tokian dabilzala bizia sorraraziko duten kristauak. Gauza sendoak ezin dira eraiki epe motzerako den egonezinez. Eraikin bat, enpresa nahiz pertsona-bazkun bat eraberritzea ez da gauetik goizera lortzen. Pazientzia izatea eskatzen du, denbora ematea eta zein helburutara iritsi nahi den garbi izatea. Ebanjelioa ereiteko dinamika hori behar da, gehienetan.

72. Gipuzkoako gure Elizan jabetu beharrean gara baditugula sendotzen eta laguntzen jarraitu beharreko prozesuak. Etengabeko prozesuak dira. Ari gara horretan, bai, baina horietan sendotu beharrean gara eta egoki orientatu. Une bateko ekintzak baino gehiago, funtsezko irizpideak nahi nizkizueke eskaini. Zein ekintza egin, elizbarrutiko nahiz parrokiako egitasmo pastoraletan zehaztuko da. Une honetan garrantzitsu iruditzen zaizkidan lau prozesu proposatuko dizkizuet zehazki: fede-esperientzia landu (espiritualtasuna), fedearen eskualdatzea, sinodal-tasuna eta lurraldearen berrantolaketa, misioa aurrera eramateko eta kristau elkarteak sendotzeko.

2.1 Fede-esperientzia landu (espiritualtasuna)

73. Esana dugunez, gure eraberritzetik garrantzitsuenak gure «makina-gelan» gertatu behar du, gure bihotzean, Jainkoarekiko harreman etengabea. Horixe da aurren-aurrea. Norberaren erantzukizuna da, zalantzarik gabe, behin eta berriz iturrira jotzea; baina kristau elkarteak ere mantendu eta bideratu behar du hori. Beti abian den prozesua da fede-esperientzia, beti landu beharrekoa; eta gaur egun berri eta suspertu beharra dugu esperientzia hori bai norberaren bizitzan bai gure talde eta elkarteetan. K. Rahner teologo jesuitak zioenez «XXI. mendeko kristaua mistikoa ez bada, ez da izango (kristaua)»⁴⁶. Ideia bera dago jaso profetia horretan: fededunaren bizitzan eta Elizaren bizitzan fedeak eragiten dio gainerako guztiari. Ongi dakigu, federik gabe guztiak behea jotzen duela. Benedikto XVI.ak honela ohartarazi zigun: «Jaunarekin harreman estua duenak beste inork ez diezaieke Jauna besteei eraman»⁴⁷. Frantziskok oroitarazi digu beharrezkoa duela Elizak otoitzaren birika, zeren otoitzik gabe «jarduera guztia antzu gelditzeko arriskua dago eta iragarpena, arimarik gabe»⁴⁸.

44 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitza (2013), 14. zk.

45 Benedikto XVI.a, *Hegoamerikako eta Karibeko Gotzainen V Batzar Orokorra hasteko Eukaristian «La Aparecida» santutegian egindako homilia*, 2007ko maiatzaren 13an.

46 Karl Rahner, «Espiritualidad antigua y actual», *Escritos de Teología VII* liburuan, Taurus, Madril 1969, 13-34 (hemen, 25).

47 Benedikto XVI.a, *Erromako elizbarrutian apaiz-ordenaziokoa egindako homilia*, 2010ko ekainaren 20an.

48 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitza (2013), 259. zk.

Garai latzak

74. Zentzu-krisiak kezkatuak gaitu bizi ditugun garai hauetan. Garai latzak dira fededunentzat. Esana dugu gure giro kulturalaz mintzatzean, badirudiela gauza guztiei zentzua ematen zien Jainkoa alde batera utzia dugula. Oso sekular-tuak egonik ere, halako oroimina edo nostalgia sentitzen dugu, zentzu handiagoz bizi nahia, giza bizitza «ekoitzi eta kontsumitu» hutsean ez utzi nahia. Gure bizitzan zentzuaren eta espiritualtasunaren dimentsioa lantzea balioztatzen ari gara berriro. Presaka bizitzeak, lasaitasunik ezak, hainbeste bultzagarri izateak zurrunbiloan murgilduak gauzkate. Ez dugu erarik, dirudienez, beharrezkoa dugun barne-isiltasuna egiteko, geure burua eta besteak aurkitzen eta, noski, Jainkoa aurkitzen lagunduko ligukeen barne-isiltasuna. Ohartu baino lehen, bizitzako zalapartak ingura gaitzake, geure onetik ateraz. San Anselmok esandako hura deigarri gerta dakiguke gaur egun guri: «Sar zaitetz zeure gogoaren barne-muinean, atera dena, Jainkoa izan ezik, itxi atea eta bila ezazu. Esaiozu: Jauna, irakatsiezaiozu nire bihotzari non eta nola bila zaitzakeen, non eta nola aurki zaitzakeen»⁴⁹.

Jainkoaren adiskide sendoak

75. Erronka handia da gu guztiontzat fedea lantzea, zaintzea eta besteei eskualdatzea. «Garai latzetan, Jainkoaren adiskide sendoak»⁵⁰, zioen Santa Teresa Jesusenak. Bai, gaur egun inoiz baino Jainkoaren adiskide sendoago izan beharra dugu, bizitzari konfiantzaz aurre egiteko, sinesmenari eusteko eta sinesmena eskualdatzeko. Horrek ez du esan nahi lehen baino zailago denik gaur egun, baizik eta gure gizartea beste une kultural oso ezberdinean dagoela, eta hain baita handia giroaren indar erakargarria, ezinbestekoa dugu Jainkoarekiko harreman estua lantzea. Gipuzkoako kristauen fedeak araztu, garbitu, beharra du, arbasoengandik hartutako fedea izate hutsean gelditu gabe, norberak bizitakoa, landutakoa izan dadin eta konprometituagoa; izan ere,

ikusia dugunez, fedea ez da oinarritzen denen konbentzimenduan, ezta denek onartzen duten giro erlijiosoan ere.

76 «Jainkoaren adiskide sendo» izatea «mistiko» edota «espiritu zale» izatea da. Baina ondo ulerturik. Espiritu zale izatea ez da beste mundu batean egotea, «espirituaren munduan egotea», bizitza eta gauzak alde batzera utzirik. Mistikoa ez da bizitzaz gozaten ez den pertsona arraroa, ikuskari eta agerpen bereziak dituen pertsona, aura berezi batek inguratua. Espiritu Santuak eralda dezan uzten duen pertsona da «espirituala», eta horregatik bizi da «Jainkoaren adiskide sendo» izanez. Iturriarekin bat egirik bizi dena da mistikoa, zoriona besteekin partekatzen eta besteen zoriona bilatzen duena, halakoengan Kristo ikusten duena eta beharrik handiena dutenak ahazten ez dituen pertsona. Guregan erarazten dituen fruituengatik antzematen zaio, noski, Espiritu Santuari: maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz ona, onginahia, leialtasuna, otzantasuna, bere buruaren jabe izatea (Ga 5, 22-23). Hala berean antzematen zaie pertsona «espiritu zaleei», «Jainkoaren adiskide sendoei». Horregatik, bekaizkeriaz eta eztabaidak izanez bizi zirenei san Paulok «haragizko, giza grinen menpeko» esaten die (1Ko 3, 3). Jainkoa-guregan den Espiritu Santua ari da, barne artista bailedin, gure bizitza moldatzen, gu gero eta «espiritualago» izan gaitezen eta, aldi berean, gero eta konprometituago.

Sinesmena lantzeko dinamismo batzuk

77. Jainkoarekiko dugun adiskidantza, Jainkoarekin estuki elkartzen gaituen adiskidetasuna, pozbidetza da guretzat eta gure ingurukoentzat. Landu beharra dugu eta indartu gure baitako «barne-eragin horiek, norberaren eta elkartearen jarduerara motibatzen eta adoretzen eta zentzua ematen dioten barne-eragin horiek»⁵¹. Konpromiso berria behar dugu gaur egun norberaren eta elkartearen bizitzan, gure fede-bizitza indartzen laguntzen diguten dinamismo horiek gehiago bizkortzeko. Horregatik gonbidatu nahi ditut biziki elizbarrutiko eliztar guztiak, Donostia-

⁴⁹ San Anselmo, *Prosligion* 1.

⁵⁰ Santa Teresa Jesusena, *Libro de la vida*, 15, 5.

⁵¹ Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitza (2013), 261. zk.

ko gure elizbarrutian hain berezia izango den *Urte Santu* honetako *Jubileu* bikoitza gogo berroz bizitzera eta fede-bizitzan hazten lagunduko digun guztia indartzera: Jainkoaren Hitza entzutera, Jainko leialean konfiantza jartzen eta haren nahia bilatzen ikasten baitugu; norberaren eta elkartearen otoitz-bizitza, horri esker harreman handiagoa baitugu eta adiskidetasun estuagoa «maite gaituela dakigun Harekin»⁵²; sakramentuetan maiz parte hartzea, batik bat Adiskidetzeko sakramentuan eta Eukaristian, kristau-bizitzaren ardatza eta gailurra baita, Jaun Sakramentatuaren gurtzan luzatua; eta ahulene-kiko eta zaurgarrienekiko konpromisoa eta gertutasuna, hor frogatzen baita kristau-bizitza eta benetakoa den ala ez ikusten.

2.2. Fedearen eskualdatzea

78. Fedearen eskualdatzea du, zalantzarik gabe, kristau elkarreak bere betiko desafioa. Gaur egun eginkizun erabakigarria da guretzat, hain sekulartua dagoen gizarte honen erdian. Fedearen lekukoa hurrengo belaunaldiei eskualdatzea da hori. Arreta eta pazientzia handiz egin beharreko lana da, baina zertan ari garen ongi jabeturik eta era sarkorren. Benetan hartu beharreko eginkizuna du kristau elkarreak fedea eskualdatze-lana, horretarako izan daitekeen prozesu oro sustatzen, errazten eta eliz zentzuz laguntzen saiatuz.

Lehenbiziko iragarpena

79. Lehenbiziko iragarpena egiteko berezko tokia eta tokirik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, familia da. Familian eta eguneroko bizitzan eskualdatzen dute naturalki fedea gurasoek eta, orobat, aitona-amonek -amonek gehienbat-. Hala izan da betidanik. Familia baitan osatzen da bereziki pertsona. Kristaua ere bai. Familiak gaur egun zer diren horixe izango dira, nagusiki, gure gizartea, baita gure Eliza ere. Familiak ezin du inoren esku utzi fedearen lehenbiziko iragarpen hori, ez parrokiaren ez eskolaren esku. Etxeko mahaiaren inguruan, eguneroko bizitzan sortzen dira fededun berriak, gauean

gurasoekin egindako otoitzetan, txikitan Jesusi buruzko istorioak kontatuz haurren desioak argitzeko. Otoitz nagusiak esaten irakatsiz, seme-alabak Elizako ospakizunetara, erromerietara, toki sakratuetara (eliza, ermita, santutegietara) naturaltasunez eramanez; santuen bizitza eta irudiak erakutsiz... piztu eta lagun egiten diote gurasoek haurren hazkuntzari sehaskatik hasita. Gero, kristau-sarbideko katekesiak sendotuko du lehenbiziko iragarpena eta, agian, eskolak ere bai. Sormena behar dugu familia gazteei seme-alaben fede-heziketarako ahalegin horretan lagun egiteko. Familia gazteek elkarre txikitan esperientzia hori partekatzeko egokiera izan dezaten saiatu behar dugu; era horretan, familien arteko adiskidantza, gogoeta partekatua, eta batzuk besteen antzeko diren familien arteko harremanak egokiera izan daitezke behar dutena eskaintzeko eta ahalegin horretan eusteko. «Ikasle misiolariak lagun egiten diete ikasle misiolari»⁵³. Lagun egite hau oso beharrezko da gaur egun.

80. Bestalde, kristauen testigantza bera gertatzen da lehenbiziko iragarpen, fedetik urrutiratuak dauden pertsonak beren bizitza fedearen ikuspegitik orientatzeko arrazoiak ikusten dituztenean testigu horiengan. Hari honetan, denok gara misiolari. Gure bizitza gatz eta argi izatera deitua da, gizartearen erdian legamia izatera. Gogora dezagun «fray etsenplu» dela predikaririk eta katekistarik hoberena. Hitzek ez dute beti konbentzitzen; testigantzak, aldiz, erakarri egiten du.

Metodo berriak

81. Lehenbiziko iragarpenaz mintzatzean gogoan izan behar dugu, sinesmenaz eta Jesu Kristoz ezer ez edota ia ezer ez dakiten pertsona multzo handi eta esanahitsu hori. Gaur egun eraberritzeak eta «kanpora irteten den Eliza» izateak esan nahi du irekiak egon behar dugula, eta eliztar garen aldetik bidea errazten eta lagun egiten jakin behar dugula lehenbiziko iragarpena egiteko «metodo berri» deitzen dioten horiei; «zirrara-metodo» ere deitzen diete.

52 Santa Teresa Jesusena, *Libro de la vida*, 8, 5.

53 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitza (2013), 173. zk.

Metodo hauek askori laguntzen diote beren fedea berritzeko eta, kasu batzuetan, baita konbertsiorako edota federa iristeko. Metodo hauek zorrotzak dira eta, batzuetan, liluragarri, distiratsuegi, gerta daitezke. Gonbidapena «banan-banan», egin ohi dute, eta hori egokia da, Ebanjelioak eraldatu dituenen testigantza zehatza eskaintzen baitzaie, proposamena ausarki eginez. Egia esan, zirrara eragiten dute. Baina badu horrek bere arriskua ere: zirrara hori iheskorra izatea, ondoren inork lagun egiten ez badie. Baita axalean gelditzeko arriskua ere, ondoren beharrezkoa den formazio egoki eta ziurra jasotzen ez badute. Halako esperientzia sutsuek gero norbaiten laguntasuna behar dute, gizakiari eta eliztarrari dagokion heldutasuna duen norbaiten laguntasuna. Esperientzia horrek, gainera, barnean egosteko eta egoki heltzeko denbora behar du, formazioaz aberastua, halako pertsonak fede-bizitza heldua bizitzera eramán ditzan eta eliz elkartean naturalki integra daitezen. Ederra izango litzateke elkar-keta eta erretiro horietan parte hartzen duten pertsonak gero sakabanatu eta elkarerik gabe ibili ordez, pertsona ekintza-zaleak izatera iristea, beren parrokia edota taldeak aberasten eta bizkortzen saiatuko diren pertsonak. On izango litzateke beste batzuekin elkartzen jarraitzea, hazten jarraitzeko, formazioa jarraitzeko, elkarrekin otoitz egiteko, adiskidetasuna sustatzeko, eta horrela noizbait hain indartsu izeki zitzaien sugarra pizturik irauarazteko. Elizbarrutian eginahalak egin behar ditugu azaltzen ari diren errealitate baliotsu hauei sistematikoki lagun egiten. Halako prozesuak bideratzeko giltzarriak honako hauek izan behar lukete: lagun egitea, diszernimendua, hazkundea eta Elizan txertatzea, integratzea.

82. Metodo berri hauek agerian jartzen dute, tradizioz egiten ari garen ebanjelizazio-proposamenak ahulduak daudela, errutinazko bihurtu direlako eta *kerygma* hots egiteak berekin behar duen freskotasuna eta zirrara galdu dutelako. Denok dugu denengandik ikasi beharra. Iruditzen zait, ebanjelizatze-lanean (nahiz haurrekin nahiz gazteekin nahiz helduekin) beharrezkoa dela iragarpen kerygmaticoaren zirrara, baita horri dagokion sarbidea edo katekesia egitea ere. Honela formula dezakegu: «prozesurik ez

zirrarak gabe, zirrarak ez prozesurik gabe», eta saiatu gure ebanjelizazioa osoagoa izan dadin eta eraldatzaileagoa pertsonen eta elkarteen bihotzean eta bizitzan.

Harrera, katekesia eta sarbide kristaua

83. Une honetan gogoan ditut lehen jaunartzea eta sendotzako sakramentua hartzeko prestatzen ari diren haurtzaroko nahiz gaztaroko katekesi taldeak; beren bizitza partekatze elkartzen diren senar-emazte gazteak eta helduak; beren seme-alabentzat bataioa eskatzen duten gurasoak; Elizaz ezkontzea eskatzen duten ezkongaiak; parrokiari hileta-meza nahiz beste zerbitzuren bat eskatzen duten familiak; edota horrelako beste talde batzuk, batez ere «zirrara-metodoen» bidez iragarpena jaso duten pertsonak. Nire esker ona erakutsi nahi diet gure kristau elkarrekin halakoei besoak zabalik harrera eta bide-laguntza egiten dieten katekistei eta beste pertsona batzuei. Eskertzekoa da bere leialtasuna eta konpromisoa. Bigarren, beste burutapen xume hau ere adierazi nahi nuke: ebanjelizazioarako egokiera da Elizara hurbiltzen den pertsona oro. Halakoei harrera ona egitea eta gertutasuna erakustea izango lirateke gure aurkezpen-agiri onena. Halakorik ez denean, ebanjelizazioa eten egiten da.

84. Bestalde, azken hamarkadetan noiztu dugun aldaketa handi eta bizkorra hau ikusarazi digu: gizartearen ez dagoela honezkero kristau kulturak eratua, eta katekesira hurbiltzen den askok ez dakiela lehen naturalki eskualdatzen eta ikasten zena. Kezka erlijiosoa esnatzearekin eta *kerygma* iragarpen egitearekin batera beharrezkoa da sinesmenari buruzko ikasketa ongi ordenatu eta artikulatuak ere izatea. Doktrinaren edukia ere garrantzitsua da katekesiaren epealdi guztietan. Elementu nagusietatik abiatuz egin behar da fedearen eskualdaketa, ondoren kristau-nortasuna sendoa eraiki ahal izateko. Gotzainen Batzarrak Helduen Kristau Sarbide Ohikunerako (Rito de Iniciación Cristiana de Adultos: RICA) onartua duen katekesi materiala oso baliotsua izan daiteke askorentzat, zeren, kristau sarbidea egin izanik ere, agian ez baitzuten bere garaian kristau formazio sendoa hartu eta, horregatik, fedean hazten jarraitu beharrean dira.

Hazkundera eta formazioa

85. Jaunarekin elkar aurkitze esperientzia sumatzea, gozatzea eta horretan gero eta gehiago sartzea da haztea. Hazkunde horrek bultzatzen gaitu Jaunaren Hitza gero eta gehiago irrikatzera, otoi-tzean elkarriketa izatera, kontenplazio bare eta esker onekoa izatera, irakurketa eta formazio handiagoa irrikatzera, Eukaristian Kristorekin elkartasuna bizitzera. Horregatik, «formazioa» baino egokiago «hazkundera» esango nuke, zeren hazten ez dena ahuldu eta galdu egiten da azkenean. Frantzisko Aita Santuak dio ebanjelizatzeak xede hau duela: «hazkundera lortzea, pertsona bakoitzaren izatea eta pertsonarentzat Jainkoak duen proiektua oso benetan hartuz. Pertsona bakoitzak Kristoren gero eta behar handiagoa du, eta ebanjelizazioak ezin du ontzat eman norbait gutxirekin konformatzea»⁵⁴.
86. Askotan Biblia edota Doktrina ikastea hartzen da formaziotzat, hau da, «informazio erlijioso» hartzea, Eliz Irakaspenak emandako dokumentuak aztertzea, irakaspen eta arau moralak ikastea. Hori ere formazioa da, noski, eta oso garrantzitsua da; hazkundera, hala ere, gainditu egiten du hori guztia eta bertute edo onbide-bizitzan haztea eskatzen du, eta, beste ezer baino lehenago, lagun hurkoarekiko maitasuna garatzea, horixe baita Jainkoari zor diogun maitasuna erakusteko erarik osoena: «Ez litzateke zuzena izango hazteko dei hau nagusiki doktrina-formaziotzat hartzea, beste ezer kontuan izan gabe. Jaunak adierazi diguna 'behatzea' da kontua, Berak digun maitasunari erantzuteko. Eta hor, bertute guztiez gainera, agindu berria nabarmentzen da, lehenbizikoa, handiena, ikasle garela hobekien erakusten duena: 'Hau da nire agindua, maita dezazuela elkar Nik zuek maite izan zaituztedan bezala (Jn 15, 12). Argi ikus daiteke, Itun Berriaren idazleek, moralari buruzko kristau mezua muina eta azken sintesia erakutsi nahi izan dutenean, lagun hurkoarekiko maitasun saihetsezina aurkezten digutela»⁵⁵.

2.3 Sinodaltasuna eta elkartasuna

87. Eraberrikuntzarako hartu eta sendotu behar dugun bide ezin uko eginezko bat sinodaltasunarena dela. Frantzisko Aita Santuak esana du horixe dela «Jainkoak Elizagandik espero duen bidea hirugarren milurtekorako»⁵⁶. Hauxe dugu hasia dugun eta sendotu behar dugun beste prozesuetako bat. Hori ez da gauza arrotza azken hamarka hauetan gure elizbarrutiko jardueran. Vatikanoko II. Kontzilioaz gero sinodaltasunaren haziak ereinak ziren Gipuzkoan. Proposamen hori, orain zehatzago, azken urte hauetan lantzen ari izan gara, Sinodoaren prestakuntzarako lanetan. Lan horrek guztiak balio izan digu beste honetaz jabetzeko: gaur egun Gipuzkoan bizi den Jainkoaren herri leiala osatzen dugunok «elkarrekin ibiltzea» dela kontua.
88. San Juan Krisostomok zioen «Sinodo dela Elizaren izena»⁵⁷. Elizaren hastapenetan, garrantzi bereziko arazoak sortzean, kristau elkarteek parte hartu ohi zuten erabakia hartzean. Hala ikus dezakegu Apostoluen Eginak liburuko 15. kapituluan, «Jerusalemgo Kontzilioa» deritzana egin zutenean; elizkide egiteko juduen ohiurak onartu beharrekoak ziren ala ez aztertu zuten. Erabakia ez zuten Apostoluek bakarrik hartu, baizik eta «Apostoluek eta arduradunek, eliz elkarte osoarekin bat erabaki zuten» (Eg 15, 22). Elizan «askotariko zerbitzuak dira, baina misioa bat bera»⁵⁸. Beraz, hartu duen dohainaren arabera, bakoitzak bere karismaren eraginez eta bere erantzukizun zehatza betetz hartzen du parte prozesu honetan, ekarpenak apaltasunez eta esku-zabaltasunez eginez, ideiak eta iritziak partekatuz, besteei entzunez eta argi eginez, eta batzuk besteengandik ikasiz. Elkartasun honen erreferentzia nagusia guretzat Pedro da. *Pedrorekin eta Pedroren ardurapean* baizik ezin dugu elkartasun betea eta eliz sinodaltasuna bermatu.
89. Elkartasunaren dimentsio bat da sinodaltasuna. Elkarte partikularretako elkartasuna adierazten du eta elkarte horiek beren artean izan behar duten elkartasuna. Gure arteko batasunak indar misiolari berezia duela irakatsi digu Jesusek: «bat

⁵⁴ Ibid., 160. zk.

⁵⁵ Ibid., 161. zk.

⁵⁶ Frantzisko, *Gotzainen Sinodo-erakundearen sortzearen 50. urteurrena gogoratzean egindako hitzaldia*, 2015eko urriaren 17an.

⁵⁷ San Juan Krisostomo, *Expositio in Psalmum 149*, 1.

⁵⁸ Vatikanoko II. Kontzilioa, *Apostolicam actuositatem*, Dekretua, 2. zk.

izan daitezela, Aita, Zu Nirekin eta Ni Zurekin bat garen bezala. Horrela munduak sinetsiko du» (Jn 17, 21). San Joan Paulo II.ak behin eta berriz esan zuen Elizak «batasunaren etxe eta eskola» izan behar duela⁵⁹. Horregatik, sinodalagoak izan nahi dugu eta batasuna gehiago bizi, ebanjelizatzaileraginkorrerago izateko. Entzuteko, diszernimendua egiteko, elkarrizketarako eta erabakitzeko prozesuak hasi nahi ditugu, testigu hobeak izan gaitezen eta gure garaikideak interpela ditzagun Jainkoari buruzko galderaz, sinesmenaz eta gure izatearen azken helburuaz, zentzuaz.

90. Misorako behar dugun elkartasun hau lortu ezinezkoa izango da erantzunkidetasunik izan gabe. Sinodaltasuna esatean, ez gara iritzien ikerketa soziologikoaz ari, ezta gehiengo eta gutxiengoaren duen parlamentuaz ere. Espirituari entzuteaz ari gara eta eliz elkartean egindako bereizmen edo diszernimendu-ahaleginaz; horretan denok har dezakegu parte erabakiak lantzean, gero batzuek erabaki horiek hartu ahal izan ditzaten eta bultzatu, denon artean aurrera eramateko. Nor bere kristau elkartean partaide izan eta erantzukizunez inplikatu ezean ezin izango da horrelakorik egin. Horretako, elkarrizketarako guneak antolatzen jarraitu beharko dugu, hizketaldi egiatia izanez eta iritzi-harreman barea.
91. Artzainok (Gotzainak, apaizek...) lehenbizikoak izan behar genuke Gipuzkoako gure elkarteetan sinodaltasun hau bultzatzen. Horretako, kontseiluak antolatu beharra dago gure kristau elkartean esparru ezberdinetan, sentiberatasun eta karisma guztien ordezkari izango diren kontseiluak, eta, orobat, elkarri entzuteko, elkarrizketarako eta erabakitzeko prozesu egiazkoak sustatu behako dira. Kontuan izan behar dugu, hala ere, «elkarrizketa sinodalean hitz egiteak bezainbat balio duela entzuteak. Kontua ez da hizlari bat besteei gailentzea edota argudio sendoz besteen iritzia gezurtatzea, baizik eta begirunez adieraztea, Espirituak baliagarritzat iradokia dela kontzientzia garbiz uste dena»⁶⁰. Duela gutxi argitaratua den Sinodaltasunaz egindako Sinodoaren *Bukaerako Dokumentuak* lagunduko digu prozesu garrantzitsu honetan sen-

dotzen eta aurrera egiten. Hori nola egin zehaztu beharko da kristau elkarte guztietan eta elizbarrutiko gure Elizaren jarduera guztia zeharkatu beharko du. Sinodoaren *Bukaerako Dokumentua* beren elkarteetan, ahal den heinean, ezagutaraztera eta lantzerako gonbidatzen ditut parroko guztiak, eta dokumentu horretan proposatua zehazten saiatzera, beren ardurapean dituzten elkarten bitzarako dagokionean. Eta pazientziaz antolatzerako elkarri entzuteko, elkarrizketarako eta parte hartzeko prozesuak beren elkarteetan.

2.4. Lurralde berrantolaketa misiorako

92. Laugarren prozesuaz ere hitz egin nahi nizuke: lurraldearen eta parrokien berrantolaketaz, alegia. Aldi bakoitzean, «ereite-politika» berrikusi eta berriz diseinatu behar da. Denborak aldatu egiten dira eta egokitu beharra dago. Misioa, ebanjelizazioa eta Gipuzkoako kristau-belaraldi berrien etorkizuna dago jokoan. Baliteke berrantolaketak, aurren-aurrenik, inguruabarrak eskatutako errealismoari erantzun nahi izatea; hala ere, badakigu badela, egiaz, motibazio garrantzitsuagoa: misioa eta kristau elkartearen etorkizuna. Garai egokia dugu, beraz, oraingo hau bakean, alaitasunez eta apaltasunez bizitzeko, Jaunaren «artalde txikia» garelako jabeturik eta Elizaren misioa ahalik eta era eraginkorrean aurrera eramanez nahi dugula jakinik, lankidetzan, diszernimenduan, elkarrekiko harremanetan eta elizbarrutian elkartasuna, komunioa, indartuz.

Irtenbideak eta egokitzapenak

93. Elizaren historian bigarren une batean sortu ziren parrokiak: hasieran lurralde bati lotua ez zegoena egoiliar edo sedentario bihurtu zenean. Elkarte txiki malguagoetan antolatuak zeuden lehen kristauak, etxeetan bildu ohi ziren eta han ospatu ohi zuten Eukaristia eta egiten otoi-tza elkarrekin. Etxeko liturgia utzirik, parrokiak sortu ziren, batez ere kristau-fedea hiriez kanpora hedatzen hasi zenean eta herrietan kristau-batzarrak sortzen asi zirenean; orduan, bilera-lekuak eta eliz eraikinak, tenpluak, eraikitzen hasi ziren. Gipuzkoan orain duguna ez da beti hala izan. Adibidez, orain 75 urte arte ez ginen inoiz ere elizbarrutia izan; beste elizbarruti handiago batzuetako zati ginen. Gure herri eta hi-

⁵⁹ San Joan Paulo II, *Novo millennio ineunte* Gutun apostolikoa (2001), 43. zk.

⁶⁰ Nazioarteko Komisio Teologikoa, *Sinodaltasuna Elizaren jardueran eta misioan* (2018), 111. zk.

rietan ikusten ditugun eliz eraikinak ez dira beti hor izan, mendeetan zehar eraiki zituzten. Urte askotan, eraikin horiek ez ziren parrokia izan, tenplu soilak baizik, eta gurtza-lekuak. Joan zen mendearen azken hamarkadetan parrokia berri asko eratu zuten, herri handietan eta hirietan batik bat, lehen zeuden parrokietatik bereiziz. Tenplu berriak ere eraiki zituzten eta lokalak ere bai haurrei eta gazteei katekesia emateko eta kristau-taldeak hartzeko, urte askoz kementsu izan baitziren. Une hartan ziren beharrei eta egiten zituzten diszernimenduei erantzuteko irtenbide eta egokitzapenak bilatzen saiatu ziren. Gaur egun gauzak, zalantzarik gabe, oso bestelakoak dira, eta azken hamarkadetan areago.

Berrikuste beharrezkoa

94. Parrokiak «jarraitzen du izaten bataiatu gehientzat bere fede-bizitzarako erreferentziarik nagusiena»⁶¹. Beti dugu elkarte jakin baten beharra sinesmena eta sakramentuak ospatzeko, Jainkoaren Hitza entzuteko ea senideekiko maitasuna bizitzeko. Hala ere, hurbil egotea ez da gaur egun faktore erabakigarria elkarteak eratzeko⁶². Egokiera du bakoitzak nahi duen tokian bizitzeko eta bere fedearen partekatzeko, agian ez etxetik gertuen duen elkartean. Nolabaiteko lurraldetasun-printzipioa beti izango da, baina gaur ditugun parroki esparru zehatzak aldatu egingo dira etorkizunean. Parroki elkartean esparrua zabalagoa izango da, baita parrokiaren arteko lankidetzaren ere. Herri batzuetan, tenpluak noizbehinkako kulturako erabiliko diren arren, kristau elkarteak inguruan dituztenekin elkartu eta sendotu beharko dute. Urteak dira ikusten ari garela ezin izango dugula ziurtatu orain ditugun parrokia guztietan zerbitzu guztiak eskaintzea, ezta elkarte-bizitza, bere alderdi guztietan, mantentzea ere. Aspaldidanik ari gara hori sumatzen eta saiatu gara toki batzuetan irtenbideak bilatzen, batzuetan arrakasta lortuz eta beste batzuetan ez. Gure egoera oso ezberdina da hirigune handietan eta herri txikietan. Tentsio-egoera bizi dugu aspaldidanik gure elizbarrutian hari honetan, batez ere apaizak gutxi direlako eta tradizionalki ia dena apaizaren ardurapean egon

izan delako. Bakez eta pazientziaz lanean jarraitu beharko dugu gure kristau elkartean lurralde-antolaketa eraberritzen. Baina erabakitasunez egin beharko dugu, zenbait elkarte dagoeneko, objektiboki, arreta hobearren beharrean dagoelako eta diszernimendua egiten eta bideak ebakitzen saiatu behar dugulako gure lurraldean, etorkizuneko kristau-belaunaldientzat. Nolanahi ere, honako honek eragin behar digu beti eta kasu guztietan: gure kristau elkartei arreta hobea eskaini nahiak eta Ebanjelioa iragartzen jarraitu beharrak.

Bereizmen, diszernimendu, irekia

95. Argi dago oraingo parrokia batzuek orain arte bezala eratuak egoteari utziko diotela. Batzuek desgertu egingo dira edota beste era batera taxutuak geldituko, batik bat hirigune handietan. Arreta pastoral eskaintzea ere ez da parrokiaren hain mende egongo eta misiolari-talde edo pastoral arreta-talde erantzule jardun beharko dute. Talde horiek apaizek, diakonoek, erlijioso-erlijiosek eta laikoek osatuko dituzte. Parrokiaren arteko lankidetzaren eta eskualdeko edo Pastoral Barrutikaren lan egiteko era berrikusi beharra dago eta bultzatu beharra. Gauza bera oraingo Artziprestaldean antolaketa edo eraketa. Datozen urteetan, batuak gertatuko dira administratiboki parrokia asko, batez ere lan ordezkatzaileari, subsidiarioari, dagokionean. Honek ez du esan nahi tenpluak itxiko ditugunik. Ezinbestekoa gertatuko da fededunak batzea ospakuntza liturgikoetarako eta beste zenbait eliz ekintzarako. Ematen ditugun zerbitzuak egokiago ordenatu eta antolatu beharko ditugu: Eukaristia eta gainerako sakramentuen ospakizunak, hileta-mezak, katekesia, Caritasen zerbitzuak eta beste pastoral jarduerak batzuek, hala nola, animazio espirituala, fededunen formazioa. Bestalde, talde misiolariak, «arduradun talde», edota «pastoral ekipo» ere deituak, nola eratu ikusi beharko dugu; gizaseme eta emakume laikoek, erlijioso eta erlijiosek, diakono eta apaizek osatuko dituzte halako taldeak. Eta beti ere, gure elkartei arreta hobea eskaintzea eta ebanjelizazioa animatzea helburu harturik. Bereizmen-lan hori, diszernimendu hori, egiten ari gara. Garrantzitsua da kristau elkarteak, ilusio berriz, parte hartzea gure elizbarrutiko Elizaren aurpegi zehatza eraberritzeko ahalegin honetan⁶³.

61 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013), 28. zk.

62 Kleroarentzako Kongregazioa, *La conversión pastoral de la comunidad parroquial al servicio de la misión evangelizadora de la Iglesia* (2020), 8. zk.

63 Ibid., 10. zk.

Bizia duten lekuak

96. Garbi izan behar dugu gure kristau elkarteek beti izan behar luketela bizia duten lekuak, sinesmena, ospakuntza alai eta duina, zerbitzua, diszernimendua, entzutea eta parte hartzea eta, batez ere, deia egin eta ebanjelizatzea bultzatzeko lekuak. Pertsona ezberdinen trebetasun eta talentuez baliatzen jakin behar genuke, dohain eta karisma ezberdinak izateak dakarren aberastasunaz jabetzen. Parrokietan benetako bizitasuna erakutsi behar genuke. Lurralde edota toki baino gehiago, elkarrekin bizitza eta aberastasuna izan behar genuke parrokietan, nork bere tokia eta kide izatea aurkituko duen gunea. Espiritu Santuak ikusaraziko dizkigu biderik egokienak.
97. Elkarrekin hasitako analisia sakontzen jarraitzekotan gara datozen hilabeteetan, eta gure

parrokietan eta eskualdeetan konprometituak dauden pertsonekin (apaiz, diakono, erlijioso-erlijiosa, laiko) hasierako ekipoak eratzten saiatu nahi dugu, parrokietan, eskualdeetan, pastoral barrutietan, elkarteekin ekin diezaioten diszernimendu-prozesu eraginkor eta bare baina ezindudatuzkoari, horrek eraman gaitzan gure elkarrekin bizitza hobeki berrantolatzea, lehentasuna zein toki eta eliz zerbitzuri eman ikustera, liturgi ospakizunak hobeto razionalizatzea eta katekesi-prozesuak eta espiritualtasuna lantzea hobeki egiteko gunek batzera. Hala berean, ondarea eta ondasunak erarik onenean antolatzen eta kudeatzen lagundu behar digu diszernimendua, misioaren zerbitzura egokitu daitezen eta elkarrekin bizitza mantentzen lagun dezaten. Beharrezko izango da horretako profesionalen laguntza izatea (agian jubilatutako boluntarioak), ekonomia gaitan adituak eta bere denbora lan horretan eman dezaketenen pertsonak.

IV. POSIBLE DIREN AMETSAK

98. Orain Gipuzkoako kristau elkarte osoarekin amets posible batzuk konpartitu nahi nituzke, gure elizbarrutiko bizitzan eragin behar dugula uste dudalarik, eta, aldi berean, etengabeko berrikuntza eta eraberrikuntza prozesu honetan aurrera goazela. Berriak ez diren arren, baliteke batzuk handinahiak izatea. Epe ez oso luzean egin ditzakegun gauzak dira. Izan ere, batzuk egiten ari dira jada; beste batzuk, hasierako faseetan daude. Zuekin amestu eta, ahal bada, gure elizbarrutian etorkizun hurbilean pixka bat gehiago bultzatzea gustatuko litzaidakeen kontuak dira. Elkarrekin amestea, estimulagarria izan eta gure konpromisoa eragin nahi duen gogoeta ariketa da. Eskatuko nizueke bakoitzak, bere mailan eta bere arduraren, dagokion bere aldetik jartzea, errealismoz eta Itxaropenez.

1. Gure espiritu-bizitza zaindu

99. Gure fede-bizitza, gure espiritu-bizitza indartzea, adierazi dugun bezala, funtsezkoa da.

Amets egiten dut Gipuzkoako kristau bakoitzak –gaztea edo nagusia izan– egun bakoitzeko liturgiaren Ebanjelioa irakurri ahal izatea eta Jainkoaren Hitza ardatz duen otoitz une txiki bat egitea (liburuak eta gailu mugikorretarako aplikazioak daude, eta erabil daitezke). Etxe bakoitzean «otoitzaren txokoa» ere irudikatu nahi nuke (ikonoa eta irudia, gurutzea, Ama Birjina txiki bat, Biblia, kandela...), familiako kide bakoitzak noizbait otoitz egin edo elkarrekin bildu eta otoitz txiki bat egin ahal izateko. Eta gure parrokietan eta gure taldeetan pentsatuz: asko izango litzateke amestea parrokia bakoitzak, Eukaristiaren ospakizunaz harago, noizbehinka elkarrekin otoitzari eskainitako egun bat izatea Elizaren eta munduaren beharreatatik, bokoengatik eskatzeko?

100. Amets egiten dut gazte guztiek kurtsoan zehar bi asteburu erreserbatu ahal izatea (Abendualdia-Garizuma), erretiratzeko, «Jaunarekin egoteko gelditzea» eta fedean sakontzeko eta otoitzegatik

gustua hartzen ikasteko erretiro edo bizikidetza horiek eurekin antolatzea. Ez litzaioke arrotza izan behar kristau bati ere (apaiza, erlijiosoa edo laikoa) urtean bost egun erreserbatzea gogo-jardunetarako, edo, urteko garai berezietan, erretiro eta otoitz une bereziak bilatzea. San Ignazioaren lurraldean ez dago oso urrutira joan beharrik leku on bat eta horretarako bidelagun on eta eskarmentudunak aurkitzeko. Parrokoei dei egiten diet, batez ere, parrokietan dimentsio hau zaindu dezaten eta fededunei parrokietako topagune eta otoitz une hauek erraztu diezazkieten. Elizbarrutiak, bere aldetik, jarduera batzuk antolatuko ditu zentzu honetan. Puntu honetan, gure lurraldeko komunitate erlijiosoen ere amets bat partekatu nahi nuke, kontemplaziokoekin bereziki, eta, ahal duten neurrian, hori bultza dezaten. Ahal izanez gero, bertako monasterioak eta komentuak gehiago aktibatzea litzateke kontua, beti ere leku ireki eta erreferentziazkoak izan daitezten, zeinetan, monasterioen eta erlijio-bizitzaren jakinduriatik, mistagogo izanik, denoi lagunduko baitigute barne-bizitza lantzen, otoitzean Jaunarekin topatzen hasten edo aurrera egiten.

2. Behartsuenak eta ahulenak

101. Behartsuenek eta ahulenek elizbarrutiaren bihotzean egon behar dute beti. Gipuzkoan gure herrikide askori eragiten dien pobreziaz eta bazterkeriaz hitz egin dugu. Ez dira zenbaki estatistikoak. Pertsonak dira. Are gehiago: gure senideak dira! Arrazoi askorengatik sufritzen duen pertsona bakoitzaren atzean, taupadaka ari den bihotz bat dago, eta Jainkoaren begietarako ederra den bizitza bat. Bakardade edo pobrezia larriaren dauden adinekoak, gaixo fisiko edo mentala, adikzio ezberdinak, kaleko egoeran dagoen jendea, familia desintegratuak eta arazo ugari dituztenak, enplegurik ez dutenak, aukerarik ez dutenak... «Jainkoaren bihotzean, behartsuentzako lehentasunezko leku bat dago»⁶⁴. Haien duintasunak gure konpromisoa izan behar du beti. Jainkoarentzat garrantzitsuak badira, kristau elkartearentzat ere bai. Zer gehiago egin de-

zakegu gutako bakoitzak alde horretatik? Gai al gara ahulengana Kristo sufritzailearen aurpegia ikusteko? Zer egin dezakegu denon artean?

102. Sentsibilitate sozialean gero eta gehiago irabaztearekin amets egiten dut. Agian ezin ditugu egoera batzuk konpondu, baina duintasuna eman diezaiokegu pobrezia edo zaurgarritasun egoeran dagoen edonori: aurpegira begiratu, duintasuna duela sentiaraziko dion hitz adeitsu eta normalizatu bat maitasunez esan, behar izanez gero laguntza ekonomiko egokia eman. Pertsona hauek kezkatu eta erakundeetara bideratzen edo laguntzen saia gaitzke, beren arazoak gainditzeko. Batzuetan haiekin egiten diren gehiegikerietatik defenda ditzakegu. Jesusen hitz haiek guregan indartsu durundatzen dute: «Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten» (Mt 25,40). Hori egiten dugun bakoitzean, Itxaropena ereiten dugu.

103. Pobreekiko dugun hurbiltasuna doakotasunaren seinale garbia da, eta doakotasun hori profetikoa da gaur egun, dena erosten edo saltzen den mundu batean, «niretzat eta nirentzat» bakarrik erreserbatutako mundu batean. Horrela, Itxaropen sendoa ereingo dugu Gipuzkoako gure gizartearen bihotzean. Ahulenekiko dugun hurbiltasun eta kezka bitartez gizarteari ikusarazten diogu Jainkoak ez duela inoiz inor galdutzat ematen. Pobrearen arazoaren erdian hurbiltasuna, errukia eta samurtasuna jartzea Ebanjelioaren ereintza indartsua da. Elizbarrutiko arlo sozio-karitatezkoan laguntzen duten ia mila boluntarioen lana goratzekoa da, pobrezia eta migrazio egoerak artatuz, gaixoak eta adinekoak artatuz, espetxe pastoraltza eta, oro har, Caritasen lana, baina hurkoarenganako maitasuna ezin da delegatu. Norberaren fedeari dagokion zerbait da, eta elizbarrutiko pertsona eta kristau talde guztientzat erreferentzia argi eta garrantzitsua izan behar du. Gazte kristauak boluntariotza eta pobrearen arreta lanetan has-tearekin amets egiten dut, kristau bizitzaren dimentsio garrantzitsu hori alde batera utzi gabe. Era berean, hainbeste gizon eta emakumerekin egiten dut amets, erretiratu berriak izanik, gure parrokietako jarduera sozio-karitatezkoetan edo proiektuetan denbora eta jakinduria gehiago eskain dezaketelako boluntariotzako jardueretan.

⁶⁴ Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013), 197. zk.

104. Bestalde, elizbarrutiko kristauok gure herri eta hirietako politikariek eta gizarteko beste eragileekin elkarlanean aritzea gustatuko litzaidake, ahulentzako irtenbideak sormenez, ekinez eta pazientziaz bilatzeko. Badakigu gauzek beren denbora daramatela, eta arazoak ez direla nahi bezain azkar konpontzen. Izan dezagun jarrera kolaboratzaile eta positiboa. Ez diezaiogun utzi epe laburrerako jarrera politikoa edo bidegabekeriak salatzeari; ezta txiroak etekin posibleak lortzeko edo bataila politikorako erabiltzeari ere. Pobreek onginahia, maitasuna, hurbiltasuna, baliabideak eta irtenbideak behar dituzte, ez ideologiak eta arrazoiak. Jar gaitezen beti haien alde, jar gaitezen haien lekuan. Karitateak ziurtatzen du gure fedearen egia. *Jubileua* une aproposa izango da elizbarrutiko jubileu-keinu berezi bat egiteko gure talde eta kristau elkarte guztien *karitatearen fantasia* gauzatuko duena. Adi egon gaitezen.

3. Gure senide migratzaileak

105. Abraham, gure fede-gurasoa, aramear ibiltaria izan zen, migratzailea. Abrahamen seme-alabak gara denok, eta, behar dugunean, mugitu egiten gara. Hala izan da gure historian ere: zenbat gipuzkoar mugitu ziren bizitza hobe baten bila! Nahiago nuke emigratu beharrik ez bagenu. Horretarako, munduko leku guztietan eman beharko lirake duintasun eta aukera egoera batzuk, ematen ez direnak. Gerrek, goseak, ustelkeriak, esplotazioak eta era guztietako indarkeriek eragiten dute pertsonen bakean bizitzeko eta seme-alabei etorkizun duina eskaintzeko leku bat bilatzea. Hori esanda, Elizak beste nazionalitate batzuetako pertsonekin duen harreman oro anaitasunetik eta gizaki orok bere izatean daraman duintasun amaigabetik soilik har dezake kontuan. Migratzaile asko iritsi dira gure herri eta hirietara. Gehien-gehienetan, lan egiteko eta oparotasuna aurkitzeko gogoz. Egunen batean bere herrira itzultzeko ilusioarekin agian. Horietako asko oso errotuta daude dagoeneko⁶⁵; beste batzuk, berriz, integrazio-prozesuan daude.

106. Horiek onartzea, laguntzea, beraien sustapenean laguntzea eta integratzea da gure ametsa eta konpromisoa. Hori da gure tokiko eta probintziako erakundeei eskatu behar zaiena. Baita geure buruari ere, kristau elkarte gisa. Egin dezagun gauza bera guk gure etxean, gure Elizan, gure parroketan eta elkarteetan. Ez daitezela inoiz sentitu bereziak edo «bigarren mailakoak». Izan gaitezen kristauok aitzindari inklusioan eta etorkizunerako bideak eta Itxaropena erakusten. Gure eskola katolikoan, gure ikastetxeetan eta gure parroketako katekesietan ere hala gara. Baita aurrera daramatzagun hainbat integrazio proiektutan ere. Amesten dut horrela izatea gure etxeetan eta haiek gurekin lan egiten duten eremuetan ere. Gure elkarteetan, gure parroketako pastoral eta era guztietako kontseiluetan, eta elizbarrutiko gure zerbitzu eta erakundeetan pertsona horiek integratzen joatea eta protagonista izatea amesten dut. Orain, Elizak sinodo-eran jarduteari buruz emandako argibideak finkatu eta eguneratzera deituak gaudenez, ez dezagun zalantzarik izan zentzu horretan urrats sendoak emateko

4. Emakumea

107. Beharrezkoa da emakumearen ezinbesteko garrantzia aitortzea, ez bakarrik gizartean, baita eliz elkarteetan ere. Norbaiti fedea nork transmititu zion galdetzen diodan bakoitzean, ia beti erantzun bera agertzen da: nire ama izan zen. Gazteago batzuek gaur diote bere amona izan dela. Parrokiako katekesiko zeregin gehienak emakumeek eramaten dituzte aurrera. Emakume asko elizako hezkuntza, pastoraltza eta gizarte arloko proiektu askoren buru dira, euren lan ona eta gaitasuna eskainiz. Bai, Elizak asko zor die emakumeei. Gaur egun, zinez, fedearen eta Elizaren zutabeak dira. Horregatik, Elizak eskertu egin behar dio Jainkoari beraien eskuzabaltasuna eta lekua, ez bakarrik erabakiak prestatzen diren eliz zerbitzu eta kontseilu ezberdinetan, baizik eta kontseilu eta gobernu organoetan ere, erabakiak hartzen diren tokian. Gure elizbarrutian hori ez da nobedadea. Tradizioa dugu horretan. Organo eta kontseilu horietan emakume gehiago sartzen jarraitu behar da.

65 Ik. Espainiako Gotzainen Batzarra, *Comunidades acogedoras y misioneras* Aholku-hitz pastoralala (2024), 14. zk.

108. Bestalde, nahi nuke denok kontzientzia berri bat hartzea gure elkarreetan, emakumearen aurkako indarkeria –baita gizon ororen aurkako ere–, bere abusu edo tratu txar mota guztietan, giza duintasunaren aurkako iraina dela eta Jainkoari egindako irain oso larria. Sinetsita nago kontzientzia hori benetakoa dela gurean, baina ezin diogu utzi gure eginbeharra azpimarratzeari: gure esku dagoen guztia egin behar dugu hori saihestu eta desagerrarazteko. Amets egiten dut elizbarrutiko kide guztiok, ideologia orotatik harago, gure gizartean gertaera hauek salatzen dituzten hainbeste emakumeren ahotsarekin bat egitea. Ez dago gai honi buruzko inhibizio edo apatia eta konpromiso faltarako tokirik. Gure elizbarrutiko elkarte eta erakundeei dei egiten diet konpromiso hau areagotu dezaten eta indarkeria mota guztiak pairatu dituzten emakumeen esanetara jarri daitezten, maitasunez eta gertutasunez lagun diezaieten, bizitzan aurrera egin dezaten eta zauriak eduki arren bakea, alaitasuna eta Itxaropena berreskuratu ahal izan dezaten.

5. «Kultura bokazional» bat

109. Gazte- eta bokazio-pastoraltza zeregin neketsua eta erronka handia da, batez ere kristau elkarreetan eta familietan belaunaldi berriei fedea helaraztea hainbeste kostatzen zaigun garaiotan. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi horren garrantzia. Diotenez, krisia ez da deituena, «deitzaileena» baizik. Eta gaur, deitzen duten horiek denok gara. Bataiatu guztiok dugu gazteenei beren bokazioa aurkitzen laguntzeko ardura. Haur eta gazteak fedean hezteak esan nahi du horiek zerumuga horretan jartzea. Familiaren oinarritzko zeregina da, baina baita parrokiarena eta kristau elkarreana ere. Bokazionala ez den gazte-pastoraltzarik ezin da egon. Gazte kristauak –baita helduek ere– Jainkoaren deiari emandako erantzun gisa ulertu behar dute beren bizitza. Jainkoak gazteak deitzen ditu ezkon-bizitzara eta familia-bizitzara, baita biziera sagaratura eta ministerio ordenatura ere. Beti deitzen die euren fedea elkarrean bizitzera, inoiz ez modu isolatuan. Otoitz sutua egitea eta familian, eskolan eta parroketan gaia planteatzea «bokazio kultura» bat sortzea da. Bokazio-kultura horrekin egiten dut amets gure Gipuzkoako Elizan, non dei eta erantzunaren gako horretan bizitzea

proposatzen diegun gazte guztiei, eta altxortzat hartzea zer esan nahi duten gure apaizengan eta Jainkoari sagaraturako pertsonengan ditugun zerbitzu-bokazioek. Elizbarrutia heziketa serioa bultzatzen ari da, gazteei hazten eta euren bokazioari kristautasunez erantzuten laguntzeko, baina gonbidapena eta bide-laguntza guztion kontua da. Ez diezaiogun geure familietan ministerio ordenaturako edo biziera sagaraturako bokazio bereziak balioesteari, nahi izateari eta bultzatzeari utzi. Parrokia eta elkarte guztiei dei egiten dizuet, etengabe Jaunari «bidal ditzala langileak bere uztara» (Mt 9,38) eskatzera, jarduerak, aldian aldiko otoitz saio bereziak eta gure apaiz eta pertsona sagaratuarekin testigantza topaketak antolatuz.

110. Gazteei, eurei gustatzen zaien bezala zuzentzen natzaie puntu honetan, zuzenean. «Gazte maitak: Bada zerbait garai batetik hona kezkatuta naukana. Batzuetan galdetzen diot neure buruari ea galdera egokia egiten ari ote zareten zuen gazte garaian, hain garrantzitsua den bizi-une honetan, normalean galdera erabakigarriak egiten diren garai honetan. Ez nuke nahi galdetzea besterik gabe zer egin nahi duzuen zuen bizitzarekin. Berehala aurkituko zenituzkete erantzun gutxi-asko argiak itxuraz aukeraz betetako etorkizun bati buruz, soldata onari buruz, irtenbide profesional onari buruz, ospe onari buruz... Galdera hori beste gazte askok ere egiten diote bere buruari. Baina zuek ez zarete beste asko bezalakoak. Zuek sinestunak zarete, eta, sinestunak zaretenez, egin beharko zenuket galdera, antzekoa izanik, oso bestelakoa da. Zein desberdina den nire buruari nire bizitzarekin zer egin nahi dudan galdetzea, edo nire bizitzarekin zer egin nahi dudan zuzenean Jaunari galdetzea! : 'Jauna, zuk zer nahi duzu nik egitea nire bizitzarekin?'. Galdetzera eta bilaketa honetan laguntzen uztera gonbidatzen zaitut. Ausarta bezain uste onekoa izatera gonbidatzen zaitut. Deitzen zaituenak zure zoriona besterik ez du nahi zuretzat. Eta hor, otoitzean elkarrizketan Jaunarekin, inguratzen zaituen munduari begira, behar zaituen kristau elkarteari begira, bilatzen duzun zoriontasunaren erantzuna aurki dezazula. Eta sako netik esaten ari zaizun dei bat agertzen bazaizu: 'Saldu dena eta jarraitu niri!' (Mt 20,21), eta ministerioan edo biziera sagaratuan (aktiboan

edota kontenplatiboan) erabateko entrega oso batera indarrez gonbidatuta sentitzen bazara, ez izan beldurrik. Jaunak, berak aukeratzen baitu, emango dizu erantzuteko behar den argitasuna, gaitasuna eta indarra. Jainkoak ez ditu gaituak deitzen, aukeratuak trebatzen baizik. Eta bidean zoazen bitartean, jarraitu trebatzen, zure fedea ospatzen, beste gazte batzuekin partekatzen; jarraitu otoitz egiten etengabe, gehien behar duten pertsoneri zerbitzatzeaz ahaztu gabe».

6. Laikoen ministerioak

111. Laikotzaren misioa eta berezko karisma sekularitatean, mundu profesional, sozial, ekonomiko, kultural, zientifiko eta politikoaren errealitatean eraldaketan badago ere, batzuk, espresuki, Elizaren misiolari izaeratik eta bere beharretatik sortzen diren zeregin eta zerbitzu espezifikoe-tan lankidetzan estuan aritzera deituak daude. Hirugarren milurtekoko Elizak, san Joan Paulo II.ak gogoratu zuen bezala, bataiatu guztiak eliz misioan duten erantzukizun aktiboaz jabetzera bultzatu behar ditu⁶⁶. Erantzukidetasun horretan, ministerioak, izan ordenatuak edo laikoa, elkarren osagarri dira, gure elkarteak Erreinua-ren benetako ezaugarri bihurtuz.
112. Elizbarrutian, laikoen ministerioak baloratu eta sustatuko dituzten kristau elkarteak amesten ditut, Jainkoarekiko eta elkarteko anai-arrebekiko maitasunaren eta zerbitzuaren adierazpen zehatz gisa. Espiritu Santuak Jaunaren deiari eskuzabaltasunez eta alaitasunez erantzuteko prest dauden gizon eta emakumeak pizten ditu. Ministerio edo zerbitzu hauek ez dira guztion-tzat, eta, betiere, laikoen nolabaiteko «klerikalizazioa» saihestu behar dugu.
113. Elizan, laikoen ministerioak ugariak eta desberdinak dira. Badira «ministerio eratuak», hala nola irakurletza, akolitotza edota katekistarena, ohikune berezi batekin laguntzen direnak. Gainera, Espirituaren sormenak inspiratutako beste «ministerio» batzuk sortu dira, gure elkarteek beren ekintza arlo ezberdinetan dituzten beharrei erantzuteko: liturgiaren animazioa, musika,

Eukaristiako ezohiko ministroak, gaixoei eta es-petxeratuei laguntzea, behartsuei arreta ematea, haur eta gazteen katekesia, ezkondueri eta fami-liei lagun egitea, hezkuntza, helduen kristau for-mazioa, laikoen misioaren sustapena... Ez dira zeregin hutsak. Elkartearen izenean burutzen diren misioak dira, Elizaren presentzia bizia ber-matzen dutenak. Zerbitzu horiek mandatu gisa baloratzea komeni da. Hori dela eta, arduraz eramaten da, prestakuntza egokia izateko kon-promiso pertsonalarekin, baita artzainekiko eta beren elkarteetan beste zeregin batzuk dituzte-nekiko erantzukidetasunetik ere. Apaizaren irudiarekiko menpekotasun gutxiago eta eran-tzukidetasun handiagoa duen Elizaren ezauga-riak dira. Gaur, gero eta gehiago, ministerioota-ko arduradunengandik espero da taldean eta era koordinatuan lan egiteko gaitasuna, ez bakarrik parroketan, baita bailaretan edota elizbarrutian ere.

114. Zehazki, gure elkartean bizitzarako berritzaileak diren bi ministerio zehatzekin egiten dut amets: harrera- eta entzute-ministerioa, non gure elkarteetara hurbiltzen direnek behar du-ten kontsolamendua eta hurbiltasuna aurkituko duten. Bestetik, doluaren ministerioa, lagun eta euts dezala Itxaropenean bizitzen gure senideen heriotzaren eta galeraren une erabakigarria, fam-iliari lagunduz baita zerbitzu erlijiosoetan ere.

7. Diakonotza iraunkorra

115. Gure elizbarrutian, diakonotza iraunkorraren ministerioa, nire aurrekoek onartuta ere, gutxi sustatu eta garatu da. Agian ez da argi izan zein den diakonotzak Elizaren historiaren hasieratik duen zerbitzua, eta haren zentzurik jatorrena berreskuratu behar dugu. Gure Elizbarrutian ministerio hau garatuago egotea dut amets. Diakonotza iraunkorraren arazoia eta bere ze-regina ondo ezagutzeak, Elizaren irakaspenak adierazten digun bezala, lagunduko digu alde horretatik. Kontua ez da diakonoek aldare edo ospakizun solemneak akolitorik kualifikatuenak edo bigarren mailako apaizak bezala «janzten» dituztela. Elizako diakonotza iraunkorra boka-zio bat da, elkarteari zerbitzua emateko minis-terio bat, eskumen asko dituen, eta Gipuzkoan ere balioan jarri behar dena, munduko beste

⁶⁶ Ik. San Joan Paulo II.a, *Novo millennio ineunte* Gutun Apostolikoa (2001), 46. zk.

elizbarruti batzuetan gertatzen den bezala. Kari-tatearen zerbitzua, Hitzaren eta predikazioaren zerbitzua, sakramentu batzuen ospakizuna eta zenbait liturgiatan, hala nola, hiletetan, presi-dentzia edo laguntza, eliz buruzagitzako minis-terio ordenatu honen parte dira, gizon zelibe nahiz ezkonduerri erreserbatua. Ezkonduen ka-suan, beharrezkoa da, ordenazioa eskuratzeko, hautagaiaren emaztea ados egotea eta bokazio horrekin laguntzea.

116. Gure elizbarrutian ezkonduetako gizonen diako-no ordenazioak, gaur egun, gure kristau elkar-teei zerbitzu handia emango lieke, ospakizun batzuei dagokienez pastoral zerbitzuak egin di-tzakete eta gure kristau elkarteak asko aberastuz jarduera ugarien garapenean eta pastoral taldeak indartuz. Elizarentzako zerbitzu handiago ba-tean pentsatzen ari diren gizon guztiak gonbi-datzen ditut ministerio hau planteatzera beren bizitzarako aukera gisa, Jaunaren aurrean eta, hala badagokio, bere familiarekin bereizmen egiteko. Era berean, dei egiten diet gure elizbar-rutiko kristau-elkarteei, batez ere apaizei, beren bizitzetan ministerio hau hartzera gonbidatuak izan daitezkeen gizonak, gehienak ezkondu eta familiako guraso direnak, «seinalatzera». Hauta-gai posiblei proposamena egin ondoren, haien jarrera baloratuko genuke, eta zentzuzko proze-su bati ekingo genioke, bereizmen, laguntza eta prestakuntza prozesu bati. Diakonoek minis-terioa beren familia-bizitzako eremu hurbilean gauzatuko lukete, beren artziprestaldearen ingu-ruan, inguruko parrokiekin, pastoral taldeekin eta apaizekin elkarlanean. Askok izango litzateke elizbarrutian ministerio ordenatu honentzako dozena bat gizonekin amets egitea? *Jubileu-urte Santu* honetako fruitu ederra litzateke.

8. Hezkuntza katolikoa

117. Gure gizartean balioak eta balioak daude. Gu-rettzat, Ebanjelioa gure erreferentzia da eta ipa-rrorratz argia izan behar du. Berak ematen digu identitatea, eta berak sortzen du guran Elizako kide izatea. Familia da fedearen lehen hezitzaile-a eta balioak ereiten diren leku naturala, baina eskola katolikoak lagundu egiten die, bidelagun egiten die, hazi egiten ditu. Identitate katoliko-ko ikastetxeetan, Ebanjelioa iragartzen da, zu-

zuean eta zeharka, harreraren, aniztasunaren, elkartasunaren eta zerbitzuaren bidez. Era be-rean, ikasgelan erlijioa irakatsiz, jaien eta garai liturgikoen inguruko ospakizunak eginez. Esko-la katolikoan haur, gazte eta, batez ere, familien ebanjelizaziorako aukerak izugarriak dira. Hau-rrak eta gazteak dauden leku bat badago, esko-lan da. Ebanjelioa ereiteko leku aproposa da. Teorian behintzat, ez baita erraza egiten kristau proposamen argi eta zuzena. Aintzat hartzekoa da emakumeen eta gizonen erlijio-kongrega-zioek ikastetxeetako pastoraltzan senideak man-tenitzeko eta laikoan lana lankidetzan sustatzeko egin duten ahalegin handia. Hala eta guztiz ere, pastoral taldeek ikastetxeetan duten ahule-zia gaingitu beharreko erronka da oraindik ere. Dei bat egin nahi nieke gure ikastetxeetako hainbeste irakasle fededun eta bokaziodunei, talde pastoral horietan batu eta parte hartzera anima daitezen, edo talde horiek antolatu eta sor daitezen, ikastetxe bakoitzean ez badaude. Proiektu pastoral batekin lan egitea, elkartu-ta eta horretan konprometitutako ikaskideen laguntzarekin, ezinbestekoa da. Ebanjelioa ez da eskolan iragarriko haur eta gazteen ebanje-lizazioan konprometitutako hezitzaileerik gabe. Bestetik, eskola publikoan erlijio katolikoko ikasgaia ematen duen irakasle heroi talde bat dago. Haien presentzia eta fedearen lekuko-tza ikaragarria egiten dute egoera bereziki zail eta mugakoetan. Haien nire maitasun berezia. Elizbarrutiak zuen esanetara egon nahi du ze-regin honetan laguntzeko.

9. Liturgia eta ospakizuna

118. Liturgia Elizaren bizitzaren funtsezko dimen-tzio bat da. Kristau bizitzaren iturri eta gailur da. Ondo dakigu otoitz egiten dugun horretan sinesten duguna eta bizitzera deituak gaudena jasotzen dela (*lex orandi, lex credendi, lex vi-veniendi*). Liturgia horrek edertasuna izan behar du ezaugarri, eta Jainkoarekin elkartzeko eta ebanjelizaziorako bide bihur daiteke⁶⁷. Go-tzain naizen aldetik, ezin diot puntu hone-tan tematzeari utzi, eta amets egiten jarraitu, Kontzilioaren liturgia-erreforma gure elkartee-

67 Frantzisko, *Evangelii gaudium* Aholku-hitz apostolikoa (2013), 24. zk.

tan gauzatzen jarrai dadin. Elizak «Jainkoaren misterioen lehen administratzaile izendatu nau agindutako Eliza partikularrean, bai eta bizitza liturgikoaren moderatzaile, sustatzaile eta zaintzaile ere»⁶⁸. Zentzu honetan, Frantzisko aita santuak ere behin eta berriz esaten digun bezala, ospakizunak bereziki zaintzera gonbidatu nahi zaituztet, bereziki Eukaristia, Kontzilioaren ondoren Elizak onartutako liturgia-liburuei jarraituz, bertan zabaltzen eta eskaintzen zaizkigun aukera guztiak gehiago aprobeztatuz. Aldi berean, *ars celebrandi* delakoan eta liturgiaren inguruko guztiaren zaintzan sentsibilitate berezia garatzera gonbidatu nahi zaituztet, sormena subjektibismoarekin, eta zuzentasuna eta duintasuna handikeriarekin nahastu gabe.

119. Era berean, gure liturgian euskararen erabileran arreta eta ahalegin berezia izatera gonbidatzen zaituztet, baita «gaztelaniaz» diren mezetan ere, normaltasunez txertatuz zenbait gorapen eta baita denok ezagutzen ditugun herri kantua ere. Bere edertasun bereziak herriaren berotasuna pizten du. Zentzu honetan, musika sakratua eta herriaren kantua sostengatzen duten eta ospakizunak edertzen dituzten koruen babesa oso berezkoak dira gure herrian; egin dezagun ahal dugun guztia horiek zaindu eta sustatzeko, guztion otoitzari asko laguntzen baitiote. Bestalde, prediku xume, zuzen, argi eta aberats⁶⁹ eta, batez ere, «ondo errezatutako» batek, kutsu kerigmatiko eta pastoralarekin kutsu akademiko edo moralistarekin baino gehiago, egia eta Itxaropena kutsatzeko osagai guztiak ditu, fededunak animatu eta aberasten dituen beharrezko hurbiltasuna erakusteko. Gure ospakizunetan parte hartzen duenak sentitzen duen poza honen guztiaren batuketari zor zaio. Beharbada, atentzioa emango dizue, baina gure hiletetan arnasten den jaiera eta edertasuna, oro har, hemen adierazi dizuedanaren eredu da.

68 Ik. Vatikanoko II. Kontzilioa *Christus Dominus*, Dekretua 15. zk. Ik. baita ere, *Sacrosanctum Concilium*, Konstituzioa, 41. zk.; Zuzenbide Kanonikoaren Kodea 387. kanona.

69 San Pablo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-hitz apostolikoa (1975), 43. zk.

120. Zenbait elkartetan, «apaizaren zain» deituriko igandetako ospakizunak egiten dira, Eukaristiaren ospakizunera erraz iritsi ezin denean Jaunaren eguna elkartean ospatzeko irtenbide gisa. Ohikune liburua ere badago horretarako. Eskertzekoa da ospakizun horiek laguntzen dituzten hainbeste lagunena. Ospakizun hauei buruz, kontuan izan dezagun Eukaristia edo beste liturgiak ospatzeari buruz hitz egin dugunean beharrezko zainketaz esan duguna, otoitz eta ospakizun esperientzia egokia izan dadin elkartean parte hartu eta Jaunaren eguna era honetan ospatu nahi dutenentzat. Gure elkarteetako liturgia-taldeek esperientzia hori elkarrekin partekatzeke eta lan horretan sakontzen lagunduko dien etengabeko prestakuntzarako aukera izatea da nire ametsa.

10. Herri-jaiera

121. Erljiotasuna edo herri-jaiera Elizara hurbiltzeko, kristau-mezua aurkezteko eta behartsuekiko elkartasun-konpromisoa hartzeko aparteko aukera gisa aurkezten da gaur. Erromesaldiak, erromeriak, santutegien inguruko bisitak eta bizimodua, gure parrokia elizetan eta ermitetan egiten diren herri-festak aukera ezin hobea dira Eliza hurbil eta irekia, apala baina gaurkoa eta solidarioa erakusteko, guztiez arduratzen dena eta guztiei eskua luzatzen diena. Eduki katoliko garbia duten ospakizun eta topaketa kolektibo hauetan, gure herrietako bizitza kohesionatzen da, baita kristau elkarteara ere. Hor disfrutatzen dugu gure auzokideekin batera eremu handiago baten parte sentitzeaz, herritar sentitzeaz, besteekin herri sentitzeaz. Kantuek, ezaugarriek, irudiek, dantzek eta beste hainbat gauzak folklore, kultura eta erlijiotasun sare ezagun batez hitz egiten digute, zeinean denok hazi garen eta garenaren parte den. Agian gehiago lagundu beharko litzateke, eta horretan guztian fedea izateko pedagogia gehiago egin, baina inola ere ez dugu gutxietsi behar gure jendearen fedearan adierazpen hori, hainbeste indar kristau eragin dezakeena⁷⁰. Hor nabari dezakegu gure herriaren be-

70 Ik. Jainkoaren Gurtzarako eta Sakramentuen Araubiderako Kongregazioa, *Herri-jaienerari eta liturgiari buruzko direktorioa* (2002), 12. zk..

netako erreserba espirituala. Hor parte hartzen du agian gure parroketan eratutako gune eta taldeetatik hain hurbil ez dagoen bizitza horrek guztiak. Jainkoaren herri leial santua da, Gipuzkoako Eliza zabala, milaka eta milaka pertsonak osatua, agian hain fede eratu ez dutenak, baina oinarri fededuna eta balio sakonak dituztenak, beren familietan eta inguru hurbilenetan naturaltasun osoz transmititzen dituztenak. Ekitaldi erlijioso herrikoi hauek laguntzea, horietan parte hartzea, animatzea eta barrutik sormenez bultzatzea, hain gureak diren tradizio osasuntsu batzuk berreskuratzea edo aldi behin gure Gipuzkoako santutegiak familian bisitatzea, Ebanjelioa erein eta transmititzea da; gure Itxaropenaren fedearen eta arrazoien testigantza ematea da.

11. Komunikazioa

122. Barrurako eta kanporako komunikazioa garrantzitsua da. Ezaguna dena maite delako premisatik abiatzen gara. Gure elizbarrutiko bizitza aberatsa bezain era askotakoa da. Gure eliztarrek elizbarrutiko errealitate eta jardueraz ezberdinak ezagutzea dut amets, beraienak direla sentitzeko, beraiengatik otoitz egiteko, parte hartzeko eta ahal dugun neurrian ezagutzera emateko. Guregan pertenezia-sentimendua areagotzea beti da positiboa. Fede bizitzen laguntzen digu, osotasun handiago baten parte sentituz, Eliza izaten, elkartuago bizitzen. Bultzatzen ari garen eraberritze prozesuari begira, beharrezkoa da barne komunikazioa modu zuzenean jariatzea, martxan dagoen prozesu hau elizbarruti osoan ahalik eta gehien zabaltzeko. Baina baita gure elizbarrutiko bizitzari eta jarduerari buruzko guztia ere. Gazteenek –nahiz eta ez bakarrik– asko lagun dezakete horretan gure parroketan eta komunitateetan. Ondo baino hobeto ezagutzen dituzte komunikabide eta kanal berriak, eta elizbarrutiko komunikazio ordezkaritzarekin ere lankidetzan jardun eta koordinatu daitezke, elizbarrutiko sare handi bat eta parrokietako informazio sareak sortzeko eta zabaltzeko. Garrantzitsua da gure Elizbarrutiaren eta gure parrokiaren erakunde-komunikazioaren edukia zaintzea; baita gure elkarteetan sortu eta dauden komunikazio-elementuak zaintzea ere

(orriak, estapak, kartelak, mezuak, tenpluen eta aretoen seinaleak, etab.), diseinuaren egungo joerei jarraiki «aire» egokiagoa emanez. Bestetik, Elizak gizarteari ezagutarazi behar dio zer egiten duen, umiltasunez, baina sormenez. Aurrera eramaten ditugun jardueren informazioan eta komunikazioan gardentasun handiagoa lortzea amesten dut, irudi faltsuak, aurrekontzeptuak eta aurreiritzi desenfokatuak desblokeatzen lagunduko digulako, gure kristau elkarteari buruzko iritzi publiko desitxuratua sortzen dutenak. Era berean, gure elkartearen proiektuak eta jarduerak ezagutaraztea gure kulturaren ebanjelizazioaren parte da, eta Elizak gure gizartearen erdian egiten duen lana balioz betetzen du.

12. Ekonomia, ondarea, iraunkortasuna

123. Gure kristau elkartearen ondare eta ekonomia gaien kudeaketa xumea izan da betidanik, «familiarra». Gaur egun, ordea, gure gizartearen konplexutasunak, legediek eta administrazioen eskakizunek gai horiek behar bezala kudeatzera eta modu profesionalagoan maneiatzera behartzen gaituzte. Gure baliabide ekonomiko mugatuak optimizatzeko modurik onena da, eta ebanjelikoagoak izaten laguntzen digu. Elizbarrutiko zerbitzuek lagunduta eta elizbarrutiko protokolo onartuek bideratuta, parrokiek euren ondasunen kudeaketa onena bilatu behar dute misioari zerbitzu hobea emateko. Gure betebeharra da ondo kudeatzea eta gardenak izatea, jardueren, erabakien eta kontuen berri emanez. «Eliza jabetzen da bere ondasunak zaintzeko eta arduraz kudeatzeko duen erantzukizunaz, bere ebanjelizazio-misioaren argitan eta behartsuei laguntza berezia eginez»⁷¹.

124. Arlo hori ezagutzen duten boluntarioak inplikatu eta zeregin horretan modu koordinatuan lan eginez bereizmen hobean, kudeaketa eta aurreikuspen hobean irabaziko dugu, eta, aldi berean, ahal den neurrian, gure elkartearen finantzaketa eta behartsuei ematen diegun laguntza optimizatuko dugu. Kristau elkarte guztien betebeharrak kanonikoa da «ekonomia

⁷¹ Frantzisko, *Fidelis dispensator et prudens* «motu proprio» eran emandako Gutun apostolikoa (2014), Incipit.

kontseilu bat» izatea, ondo bideratu eta tokian-tokian zeregin hori zainduko duena. Elkarrekin guztietan benetan funtzionatzearekin amets egiten dut. Bestalde, ondare historiko, arkitektoniko eta artistikoaren etorkizunean pentsatu behar dugu. Egia esan, desproporzio handia dago mantentzeak dakarrenaren eta kristau elkarteak benetan sostenga dezakeenaren artean. Espero dugu administrazio publikoek lan hori baloratzen eta horretan ere konprometitzen

jarraitzea. Denon ardura da zaintzea eta hurrengo belaunaldiei ematea. Zalantzarik gabe, elizbarrutiko pertsona kualifikatuena talde on batek, euren artean eta elizbarrutiko administrazioarekin ondo koordinatuta, zonaldeetan gure ondasun eta baliabideak modu eraginkorrean kudeatzen lagunduko luke. Gaur egun go sei artziprestaldeetako bakoitzean dozena erdi boluntario aurkitzea dut amets zeregin horretarako.

AMAIERA

125. Anaia maitea, arreba maitea: eskerrik asko, bihotz-bihotzez, zuen pazientziagatik. Abendualdian gaude, Jainkoaren gizakundearen misterioaren ospakizunera eramango gaituen prestaketa-aldian. Jainkoak bere burua aurkigarririk bihurtzen du, gugatik bere burua aurkitzen utzi nahi du, eta bere etorrerarekin berritzen gaitu. Utzi zuk ere Beragatik aurkitzen! Eta, Abenduko koroaren kandelak bezala, apurka-apurka piztuz doazenak, horrela piztu bedi zuegan ere Itxaropena. Emmanuel, Jainkoagurekin, beste behin dator, eta gure bihotzek batzuetan ahazten duten promesa ekartzen digu gogora: «Ni zuekin nago, egunero, munduaren amaiera arte » (Mt 28,20).

126. Espreski eskertzen dut gure elizbarrutian eraberritze bide hau beren bitartekotzaz laguntzen ari direnen otoitza. Eskerrak bereziki gure ahizpa eta anai-arreba kontenplalariei, gure apaiz agurgarriei, adineko hainbat erlijioso eta erlijiosei eta gure parrokia eta kristau-elkarteetako hainbat fededuni, beren etxeetako isiltasunetik –agian beren gaixotasun edo zahartzarotik– otoitzean Jainkoari beren bizitzako onena eskaintzen jarraitzen baitute. Haien otoitzak gure elkarteekin batera doaz eta gure amets misiolariak Kristoren Bihotzaren eta Mariarenaren bihotzaren sutan berotzen dituzte. Itxaropenaren lekuko handiak dira, beraiengandik hainbeste ikasi dugularik eta ikasten jarraitzen.

Gogoan izan aurtengo Jubileu-urtean. Haien laguntzen gaituzte eta erakartzen gaituzte sortzaile izateko eta bide onenak aurkitzeko behar dugun argitara.

127. Itxaropenean erromesak gara; bidean goaz. Hori dute mugimenduak eta bizitzak. Ez gara betiko pentsatzeko eta jokatzeko era berdinetan itxiak geratu. «Itxaropenak ez du hutsik egiten» (Erm 5,5), horrek akuilaturik, irteeran bidean jartzen gara; geure buruetatik pixka bat deszentratzen gara, eta haraindikotasunari bidea zabaltzen diogu; jada ezaguna dugunetik ateratzen gara, eta aukera berrietara irekitzen gara. Hainbeste ametsi «haragia jartzeko» ausardia eta indarra oparitu diezagula Jaunak. *Jubileua* pozgarria izango da guretzat datorren urtean; gure partaidetza, gure elkartasuna eta gure misioa indartzeko benetako denbora.

128. Elkarrekin amesteari ez uzteko gonbita egiten dizuet, txikien berezko umiltasunarekin. Ez diezaiozun utzi haziaren indarrean konfiantza izateari. Arantzazuko Ama Birjinaren eskutik helduta, gogoan izan dezagun san Bernardok Mariari eskainitako bere sermoi distiratsuenetako batean utzi ziguna⁷²:

⁷² Claravalgo san Bernardo, *Homilia II super «Missus est»*, 17.

«Oi, lur sendotik urrun sentitzen zaren hori, mundu honetako olatuek eramanda, ekaitzen erdian, ez baduzu beldurtu nahi, ez kendu begiak Izar honen argitik, dei egiozu Mariari! [...] Ez zara galduko jarraitzen badiozu, ez duzu etsituko erregutzen badiozu, ez zara galduko Bera gogoan baduzu. Berak bere eskua luzatzen badizu, ez zara eroriko; babesten bazaitu, ez duzu zertan beldurrik izan; ez zara nekatuko zure gidaria bada; zorionez iritsiko zara portura, Berak babesten bazaitu».

129. Eta Itxaropenera berriro itzuliz, utzidazue gogorarazten badakizuen zerbait: egunsentiaren aurretik, ilunabarra eta gau gutxi-asko luzea daude. Hodeiek eguzkia ezkuta dezakete, baina ezin dute eguzkia desagerrarazi. Eguzkiarentzat ez da inoiz gaurik izaten. Neguak udaberria darama bere bihotzean, haziak zuhaitza, arraultzak bere barnean arranoa bere hegaldi handientsuekin. Solemnitate guztia gauzez hasten da, lehen bezperekin. Jainkoa gauaren isiltasunean etorri zen gugana eta gizon egin zen Jesu Kristogan.

130. Gogora ditzagun ilunabarrean Emausko herrixkarantz atsekabeturik eta adorerik gabe zihoazen ikasleak (Lk 24,21-24). Idazteuneko pasarteak benetan triste eta etsita erakusten dizkigu. Porrot egin dutela eta amets egiteko gogorik ez dutela sentitzen dute. Haien bihotzean samintasuna eta tristura besterik ez dago. Bizi izandakoaren egoera zailak alaitasuna ezabatu zien bihotzetik. Baina Jesus, Jauna, haien bila doa haiek erreskatatzeko. Beraiengana hurbiltzen da, zapaldu gabe, errespetuz, haien barrenak entzuten ditu, eta egiaztatzen du: benetan, ahaztu egin dute promesa! Beraren presentzia diskretuak, konpainiak eta hitzak bakarrik ahalbidetzen dute ikuspegi berri batera irekitzea.

131. Bat-batean, oharkabean bezala, Pazko gaueko Gaubeila handian murgildu ziren: «Ez al zegoen gure bihotza sutan, bidean hitz egiten zigun bitartean?» (Lk 24,31). Eta, elkarri begiratuz, konturatu ziren ez zirela prozesio-ko azkenak, baizik eta etorkizun berri bati

buruzko primiziak, oharkabean beharbada. Ibiltari misteriotsuak ikusarazi zien. Pozaren pozez lehertu ziren horretaz ohartzean, eta, bihotza sutan, «berehala» itzuli ziren Jerusalem (Lk 24,33), gaua izan arren (Lk 24,29), haien poza geldiezina bihurtu zelako, lehergarria: besteei jakinarazi behar zieten!

Jaunak bedeinka zaitzatela beti.
In Corde Matris,

Donostia, 2024ko abenduak 1
Zuen anaia,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Donostiako gotzaina